

hiruka

Udako berezia
233. zenbakia
2026ko uda



URIBE KOSTAKO JAIAK

Igo jaien olatura!

UZTAILA-IRAILA

DANTZA



41. Nazioarteko Folklore Jaialdia 41.º Festival Internacional de Folklore

Uzt. 18 ITXARTU TALDEA (Getxo)
Uzt. 19 INETNON GEFPA'GO (Guam Irla)
Uzt. 20 NGWAO LETSHWAO (Botswana)

UZTAILAK 18, 19, 20
 20:00/3 € (Bonua: 7 €)

MUSIKA



BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Alejandro Cantalapiedra
Flauta bakarlaria: Jon Thate

URTARRILAK 5 (larunbata)
 20:00/8 €

MUSIKA



42. NAZIOARTEKO FOLK JAIALDIA

Egitaraua uztaileen 27an ikusgai
getxo-kultura.eus webgunean

IRAILAK 9>13
 20:00/Ordainezko kontzertuak

ANTZERKIA



GAUPASA El mortero

Aktoreak: Aiora Sedano,
 Josu Angulo Anthonisen,
 Iñaki Maruri, Lucía Astigarraga,
 David Caiña, Ibai González Rica

IRAILAK 19 (larunbata)
 20:00/8 € (uztaileen 27tik aurrera salgai)

hiruka

HIRUKA kooperatiba sozietatea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Amaia Legarreta

Erredakzioa: Hodei Torres, Laura Fontalba, Izaro Garcia eta Ander Zarraga Goirizelaia.

Diseinua eta maketazioa: Artefakto Estudio

Kudeaketa eta administrazioa: Jon Artola eta Oihane Azula.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

HIRUKAk ez du zertan bat etorri aldizkari honetan parte hartzen duten kolaboratzaileek adierazitako iritziakaz.

Erakunde laguntzaileak



foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Zurea, denona

U da hemen da! Azke-
nean... Baina kontu-
ratu orduko, iraileko
errutinan murgildu-
ko gara berriro; be-
raz, ezer baino lehen,
hurrengo asteak, egu-
nak, orduak eta minutuak ahalik eta
modu gozagarrienean zuketzea opa
dizuegu HIRUKAtik.


Jaiak biltzen dituen aldizkari hau
ikasturte amaierako lana bezalakoa,
azterketa baten modukoa da gure-
tzat: jai-batzordeakaz harremanetan
jarri, egitarau guztiak sasoiz prest
eduki, elkarrizketak zein eduki inte-
resgarriak bilatu... Ez da lan makala,
baina eskertzekoa da herritarrek HI-
RUKAgaz duzuen adeitasuna.

Lerro hauek baliatu gura ditugu ur-
tez urte babesa ematen diguzuen nor-
banako, enpresa eta erakundeetako ki-
deoi eskerrik beroena emateko, baita
gugaz bidelagun zareten HIRUKAlagu-
nei ere. Eskerrik asko bihotz-bihotzez!

Gure baliabideak urriak izan arren,
eta, askotan, korrontearen aurka ba-

goaz ere, guk lanean jarraituko dugu
tinko. Gure onena ematen jarraituko
dugu, uste dugulako tokiko prentsak
merezi duela, euskarak merezi duela,
zuek ere merezi duzuela eta txikitik
handira egitea posible delako.

Era berean, azpimarratu nahiko ge-
nuk gure atea beti izango dituzuela
zabal-zabalik, eta, askotan (gehiegi-
tan), gaurkotasunaren zurrunbiloak
irensten bagaitu ere, HIRUKA zuona
ere badela, eta zuen ekarpenak beti
direla ongietorriak. Horregatik, uda-
ko jaietan dena zipriztintzen duen
adiskidetasun- eta elkartasun-giro
hori baliatu gura dugu gugana etor-
tzeko deia egiteko; idatzi zuen iritzi-
artikuluak, galdetu lotsa barik, bida-
li informazioa, egin proposamenak...
Gu irrikan gaude zuen ekarpenak ja-
sotzeko. HIRUKA ez delako gurea ba-
karrik; denona da. Horregatik, zuen
ahotsa entzuten jarraitu gura dugu.
Zatozte, parte hartu eta egin dezagun
elkarregaz hurrengo hamar urteeta-
ko HIRUKA **Prentsa euskaraz, pentsa
euskaraz!**



HIRUKA Hitzetatik harago

Uribe Kosta kontatzeko modu bat, denon artean eraikia

Astero iristen da HIRUKA zuen etxeetara, eta egunero berritzen dira webgunea eta sare sozialak. Baina nola da hori guztia posible? Goazen ba deskubritzera!

Zuek zarete HIRUKA posible egiten duzuenetako batzuk. HIRUKAlagun izatea ez da urtean behin kuota bat ordaintzea bakarrik; Uribe Kostan euskarazko kazetaritza babeslea da. HIRUKA irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko kooperatiba-sozietatea da, eta gure helburua ez da etekin ekonomikorik lortzea, eskualdeko albisteak, istorioak eta herritarren ahotsak euskaraz jasotzea eta zabaltzea baizik.

Proiektu hau, gainera, guztion artean sostengatzen dugu. HIRUKAlagunek eta bazkideek egiten duten ekarpezez gain, tokiko merkatariek, ostalariek eta enpresek publizitatearen bidez babesten dute hedabidea. Era berean, euskararen sustapena eta tokiko komunikazioa bultzatzeko lanean ari diren erakunde publikoen laguntza ere jasozten dugu; tartean, Uribe Kostako udalek, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Iturri horiek guztiek ahalbidetzen dute HIRUKAk bere eguneroko jardunari eustea.

Urtero 220.000 euro inguruko aurrekontua kudeatzen dugu. Jasotzen dugun diru guztia HIRUKAn bertan berrinbertitzen da: lantaldearen soldatak ordaintzeko, diseinua eta maketazioa egiteko, aldizkaria inprimatu eta etxe etxe banatzeko, webgunea eta sare sozialak eguneratzeko, ikus-entzunezko edukiak sortzeko eta etengabe berrikuntzan aritzeko. HIRUKA komunikabide soil bat izatetik harago, eskualdeko eragileen, erakundeen eta herritarren bozgorailua ere izan gura dugu.

Atzean lantalde txiki baina konprometitua gaude: kazetariak, diseinatzaileak, ikus-entzunezko arduradunak, kudeatzaileak eta administrazio arloko kideak, banaketan aritzen diren pertsonak eta kolaboratzaile ugari. Batzuk albisteak idazten ikusiko gaituzue; beste batzuk kameraren atzean, iragarleak harremanetan edo aldizkaria garaiz iritsi dadin lanean. Zereginak zeregin, guztiok helburu berdina dugu: Uribe Kostako informazioa euskaraz, gertutik eta kalitatez eskaintzea.

Azken batean, HIRUKA ez da erredakzio bateko lau hormen artean egiten den hedabidea: kalean egiten da, herriz herri, jaietan, kultur ekitaldietan eta auzoetan. Eta zuek ere proiektu horren parte zarete. ◀



Zuetako askok urteak daramatzazue HIRUKA bidelagun; beste batzuek, agian, lehen aldiz duzue aldizkari hau esku artean. Inoiz ez da berandu talde honen parte izateko. HIRUKA ez da albistez bakarrik osatzen; komunitate oso baten babesari eta konfiantzari esker egiten dugu aurrera. HIRUKAlagunen atea beti daude zabalik, eta zaretenak zaretela, zuek zarete HIRUKAren benetako motorra. Elkarregaz, Uribe Kosta euskaraz kontatzen jarraituko dugu. **Zatozte gugaz bidea egitera! Prentsa euskaraz, pentsa euskaraz!**

Denon artean egiten dugun hedabidea

U ribe Kostako **euskara hutsezko** tokiko komunikabide-talde bakarra gara, kooperatiba eta irabazi asmorik gabekoa. Hemen gertatzen dena informatzen dugu, independentziagaz, **gertutasunagaz** eta **begirada propioagaz**.



HARPIDETU

BABESTU TOKIKO KAZETARITZA

Zure harpidetzarekin independentziagaz eta kalitatez informatzen jarraitzeko laguntzen diguzu. Urtean 35€-ren truke.



EGIN ZAITEZ BAZKIDE

KOOPERATIBA BAT GARA

Egin zaitez bazkide eta proiektuan parte hartu. Zure ahotsak eta sostenguak denon hedabidea den hau indartzen du.



GURE WHATSAPP ETA TELEGRAM KANALEKO KIDE EGIN

INFORMAZIOA ZUZEN-ZUNENEAN

Eskualdeko albisteak eta gehiago egunero zure mugikorrean.



PARTE HARTU, KOLABORATU ETA IDATZI

ZURE IRITZIAK GARRANTZIA DU

Zure iritzia artikulua eta ekarpenak gure komunitatean kaleratu eta tokiko eztabaidaren parte izan.



Eskaneatu eta harpidetu!



Batu gure kooperatibara!



Kanaleko kide egin!



Komunitatean sartu eta eman zure iritzia!



688 693 195 · 944 911 337



hiruka@hiruka.eus




Martikoena 16, 2.solairua
48992 Algorta · GETXO



hiruka.eus

prentsa euskaraz,
pentsa euskaraz!

Uribe Kosta jaietan



Orriotan topatuko dituzun hainbat egitarau behin-behinekoak dira, beraz, kode hau eskaneatuz gero informazioa gaurkotuta izango duzu. Gainera, bertan, herri eta auzoetako jaien informazio gehigarria, argazki-galeriak eta bideoak ere topatuko dituzu.

- ▶ Mezatik erromeriara,
ANTZINAKO ETA GAURKO JAIAK 8-9
- ▶ Taberna Ibiltaria
26 URTE KALEAK KANTUZ BETETZEN 12
- ▶ Tradizioak kolokan
SOKAMUTURRA ETA ASTO-PROBAK 42
- ▶ Naiara Barrado
astrofikaria
ABUZTUAREN 12KO EGUZKI-EKLIPSEA 44-45
- ▶ ALBE agenda
UDAKO BERTSO-SAIOA 56

Herriko jaien egitarauak

- ▶ Berango
Uztailak 24-26
SANTA ANA JAIAK 22
Uztailaren 31tik abuztuaren 4ra
SANTO DOMINGO JAIAK 35
- ▶ Erandio
Uztailak 10-12
SAN KRISTOBAL JAIAK Goierri 10
Uztailak 17-19
ASUAKO JAIAK 14
Abuztuak 14-15
ANDRA MARIKO JAIAK Erandiogoikoa 34
Abuztuak 6-10
SAN LORENTZO JAIAK Astrabudua 38-39
Abuztuak 17-18
SANTIMAMIKO JAIAK 47
Abuztuak 26-30
SAN AGUSTIN JAIAK Altzaga 48-49
- ▶ Getxo
Uztailak 18-20
NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA 20
Uztailak 24-26
SANTA ANA JAIAK Areeta 21
Uztailak 25
AIXERROTAKO NAZIOARTEKO PAELLA EGUNA 26
Uztailak 29-abuztuak 2
SAN INAZIO JAIAK Algorta 28-31
Abuztuak 2-9
ITZUBALTZETA/ROMO ETA PINUETAKO JAIAK ... 32-33
Abuztuak 10
SAN LORENTZO AZOKA Algorta 37
Abuztuak 12-16
PORTU ZAHARREKO JAIAK 40-41

- ▶ Gorliz
Uztailak 24-28
SANTIAGO JAIAK 24-26
Abuztuak 5-9
ANDRAMARIAK 34
Abuztuak 10
SAN LORENTZO EGUNA 37
Abuztuak 15-16
UREZARANTZAKO JAIAK 47
- ▶ Leioa
Abuztuak 2-9
ITZUBALTZETA/ROMO ETA PINUETAKO JAIAK ... 32-33
Abuztuak 17-18
SANTIMAMIKO JAIAK 47

Abuztuak 21-24
SAN BARTOLOME JAIAK 46
Irailak 25-27
TXOPOETAKO JAIAK 54
- ▶ Lemoiz
Uztailak 19-21
KARMEN JAIAK Armintza 13
Abuztuak 13-16
ANDRA MARIKO JAIAK Urizar 36
- ▶ Plentzia
Uztailak 9-12
SAN KRISTOBAL JAIAK Txipio 10
Uztailak 16-19
KARMEN JAIAK 18
Uztailak 18-20
MADALENTXUAK 18
Uztailak 21-22
MADALENAK 18
Uztailak 29
SARATXAGAKO JAIAK 18
Uztailak 31
SAN INAZIO JAIAK 18
Abuztuaren 22tik irailaren 2ra
SAN ANTOLIN JAIAK 50-51
- ▶ Sopela
Uztailak 15-19
KARMEN JAIAK Larrabasterra 16-17
Uztailak 20
SANTA MARINA EGUNA 19
Uztailak 19
FOLKLORE BIZIAN JAIALDIA 20
- ▶ Urduliz
Uztailak 10-11
RABU EGUNA 11
Uztailak 18-20
SANTA MARIÑEKO JAIAK 19
Irailak 4-13
ANDRA MARIKO JAIAK 52-53

Mezatic erromeriara, antz

Egungo festen eredia nahiko berria da; lehen, kontua oso desberdina zen: erlijioa zegoen ospakizunen erdigunean, baina eta ondo pasatzen ere bazekiten.

ANDER ZARRAGA ▶



BIGANTXAK ALTZAGAKO JAIETAN: DABORDUKO DESAGERTUTAKO OHITURA.



GORPUZTI EGUNA GETXOKO PORTU ZAHARREAN. MEMORIAS DE GETXO



ABADEA PAELLA-TXAPELKETAKO EPAIMAHAKIDE AIXERROTAN. MG

Kuadrillak, kontzertuak, txosnak eta herri-bazkariak dira udako festen protagonistak. Iraganean, aldiz, festek bestelako esanahi bat zuten eta komunitatea antolatzeko, harremanak egiteko, boterea erakusteko eta herri bakoitzaren nortasuna indartzeko hitzorduak ziren.

Gaur egun, jaiak aisialdiagaz lotzen dira batez ere, lehen, ostera, herriaren bizitza osoa zeharkatzen zuten. Meza nagusia, prozesioa, agintarien presentzia, erromeria, bazkaria, dantzak, azoka, ganadua, itsasoa... Elizak markatzen zuen erritmoa eta herriaren ospea ere zegoen jokoan. Santuen egunak, baselizen inguruko erromeriak eta patrioiaren ospakizunak ziren urteko mugari nagusiak: San Pedro Sopelan, San Juan Leioan eta Barrikan, Santa Marina Sopela eta Urduliz artean, San Nikolas Algortan, San Isidro Getxoko Andra Mari inguruan, San Antolin Plentzian, San Lorentzo eta San Agustin Erandion, Karmengo Ama Armintzan, Santiago eta Andra Mari Gorlizen edo Santa Ana eta Santo Domingo Berangon... Herri eta auzo bakoitzak bere eguna zuen, baina egitura antzekoa zen gehienetan: goizean diana edo txistulariak, ondoren meza nagusia, prozesioa edo bedeinkapena, agintarien aureskua eta, arrastian, erromeria.

Gurean, Santa Marinako jaiak dira antzinako eredu horren ispilu eder bat. Sopela eta Urduliz arteko mugan, haitzen gaineko ermitaraino igotzen dira oraindino herritarrek prozesioan. Mezaren ostean, Sopolako Udalak harrera eskaintzen die herritarrei. Lehen, hamaiketako xumea zen: ardo zuria eta galletak, baina esanahi handikoa, udalaren eta herritarren arteko harremanaren erakusgarri abitzen. Gero, agintariek eta udal-langileek bazkaria egiten zuten landan. Ohitura zahar hark, ordea, eztabaida politikoak ere piztu zituen Errepublikaren garaian: jaietako gastuek, bazkariak eta elizkizunetara joateko moduek ez baitzuten esanahi bera guztientzat. Izan ere, XX. mendearen hasieran, jaiak politizatzen hasi ziren, eta joera hori indartu egin zen Bigarren Errepublikan. Berbarako alderdi politikoek tren erabiltzen zuten herritarrek euskal jaietara eta batzokien inaugurazioetara mobilizatzen; Plentziako Batzokiaren irekierarako, adibidez, tren bereziak antolatu zituzten. Meza, mitina, musika, ezpata-dantza, sokatira eta erromeria elkarren ondoan agertzen ziren. Herri-kultura, folklorea eta politika kate berean josten ziren, eta jaiak nortasun nazionalaren erakusgarri ere bihurtu ziren.

Eskualdean trenbidea martxan jarri zenean, 1893tik aurrera, ospakizunek beste dimentsio bat hartu zuen. Ospakizunen egunetan, udalek tren bereziak eskatzen zituzten inguruko herrietako jendea ekartzen zutelako prezio merkeetan, eta horrek erromeriak handitu eta masifikatu zituen. Ordura arte oinez, gurdiz edo gertuko auzoetatik egiten zen joan-etorria errazago bihurtu zen.

BASERRI-GIROA NAGUSI. Iraganean, jaiak, neurri handi batean, baserri-munduari lotuta zeuden. Adibidez, abereak bedeinkatzeko ohitura zegoen, baserriko ekonomiaren eta bi-

inako eta gaurko jaiak

ziraupenaren erdigunean baitzeuden, ospakizunak ez zuen soilik kutsu erlijiosoak: eguneroko lanari eta etxeko ongizateari lotutako erritua zen. Hainbat adibide ditugu gurean, besteak beste, Getxoko San Isidro jaietan baserriarren munduaren inguruan antolatzen zen, eta Andra Mariko Aingeru Guardakoaren basilizaren inguruan egiten ziren ospakizunak. Gana-du-feria, herri-bazkariak, dantzak, idi-probak eta pilota ziren eguneko osagai nagusiak. Getxo gaur egun sarritan itsasertzari eta hiri-garapenei lotuta irudikatzen bada ere, jai horiek gogorazten dute Andra Mari inguruan baserri-giroak pisu handia izan zuela garai batean.

Eskualdean, itsasoak ere bere jaiak zituen, noski. Algortako Portu Zaharrean, San Nikolas marinelen zaindaria zen, eta haren omenezko ospakizunak Usategi inguruan egiten ziren. Algortako marinelen kofradiak protagonismo handia zuen egun horietan. Portuko eta itsasoko bizimodua gogorra zen, eta jaiak babes-eskaera, oroimen eta komunitatearen erakusgarri bihurtzen ziren. Armintzan eta Plentzian ere Karmengo Amaren egunean, itsas prozesioa hunkigarria egiten jarraitzen dute gaur egun ere: itsasorazten dute, eta loreak eskaintzen dizkiote hildako marinela eta senideen omenez. Plentzian ere, San Antolin jaiak herriaren izaera marinela eta merkataritzakoari lotuta garatu ziren, itsasadarraren, azokaren eta erromeriaren bueltan.


ERROMERIA: JAIETAKO BIHOTZA. Jaietako musika-emanaldietan egiten zuten topo baserriarrek, marinelek, auzoetako gazteek, familiek eta kanpotik etorritako bisitariak. Dantza egiteko, elkar ikusteko eta bikotekidea aurkitzeko gune garrantzitsua zen. Gaur egungo ikuspegitik xaloa dirudien arren, erromeriak tentsio sozial handiko lekuak ere baziren: nor nogaz dantzatzen zen, zenbat hurbiltzen ziren gorputzak, zein musika jotzen zen eta zein ordutara arte luzatzen zen jaia ez ziren kontu hutsalak. Dantzan egiterakoan gehiegi hurbiltzeak kezka handia sortzen zuen Elizaren eta sektore tradizionalisten artean; lizuna edo euskal ohituren kontrakoa zela esaten zuten batzuek.

Gainera, gazteek musika arrotza entzuten dutela esatea ere ez da gaurko kontua. Esaterako, pianilloa edo biraderadun pianoa heltzen hasi zenean, askok modernitatearen eta dibertsio errazaren ikur gisa hartu zuten; beste batzuek, ordea, gazteria «usteltzera» zetorren tresna arrotz eta itsusizat jo zuten. Sopelan, 1920 inguruan, San Pedro jaietan pianilloa debekatzeko erabakiak eztabaida piztu zuen. Jaia «zibilizatzea» edo «garbitzea» aipatu zuten.


Gaur bezala, antzinako jaietan ere kontraesan asko pilatzen ziren. Hala ere, gaur egun gertatzen den bezala, jai-egunak ez ziren egutegiko etenaldi bat soilik, urteko une berezietako bat ziren, eta askotan, herrien, auzoen, baserrien eta familietan izaera kolektiboaren erdigunean zeuden. Gainera, gaur egun gertatzen den bezala, ospakizunerako harremanak sortzeko eta, nola ez, dibertitzeko hitzorduak ziren. ◀



LANDA-GIROKO FESTA XIX. MENDEAN. MACARIO MARCOARTU GOICOECHEA.



GARGANTUAERANDIOKO JAIETAN, 60. HAMARKADAN.



PLENTZIAKO NEKAZAL-AZOKAK MENDE BAT BAINO GEHIAGOKO HISTORIA DU.

Erandio San Kristobal jaiak

Jai txikietan, girorik onena

Goierriko jai-batzordean zortzi kide daude; gutxi iruditu arren, ez dute aitzakiarik jartzen, eta egitarau ezin hobea prestatu dute aurtengo jaietz gozatzeko.

Goierrira heldu dira berriz jaiak eta Bidane Bilbaok, jai-batzordeko kideak, baieztatu duenez, berriz antolatu dute hain famatua den Euskadiko Sokatira Txapelketa. Lehenengo, Martiartun eta San Antonion mutilen 600 kiloetan eta nesketan 540 kiloetan izango da, eta, gero, sankristobaletan, mutilen 560 eta nesken 500 kiloko bigarren jardunaldia. Euskal Herri mailan hiru talde dira lur gainean aritzen direnak eta txapelketan parte hartuko dutenak. «Arrakasta izaten du; azkenean, egia da sokatirak auzoan bere indarra baduela, eta, askotan, baita auzoa mugitzeko agente moduan funtziona dezakeela ere», azaldu du.

Goierri auzo txikia bada ere, auzo-identitate gogorra daukala azpimarratu du Bilbaok. Jai-batzordekoek gaineratu dutenez, euren auzoa da eta haren giro-bizia mantentzea eta jaiak aurrera ateratzea bakarrik herritar guztien konpromisoagaz lortu daiteke. Horregatik, herrikoentzat mezu argia dute: «Etorri, disfrutatu eta aspaldian ikusi ez duzu auzoko jendeaagaz topo egin; nahiz eta txosnetan lagundu ez edo jai-batzordean egon ez, prest gaude jendea batzeko». ◀

Uztailaren 10etik 12ra



Uztailak 10, barikua

- 12:00 Meza.
- 12:30 Auzoko nagusientzako lunch-a.
- 18:30 Umeen jaitsiera San Kristobaletik Iberre auzora, txokolatada eta igoera.
- 19:00 Jagoba Bilbaoren omenez, txinbera txapelketa.
- 20:00 Umeentzako jolasak.
- 21:00 Pintxo-morunoak.
- 21:30 Umeentzako diskofesta.

Uztailak 11, zapatua

- 17:00 Trikitilariak giroa alaitzen Goierriko eskola zaharretan.

- 17:30 Sokatira.
- 20:00 Trikitilarietaz San Kristobal ermitara kalejira.
- 20:30 Saiheski-jana.
- 23:00 Bidean Erromeria.
- 2:00 Bingo.
- 2:30 Untximaltzurak.

Uztailak 12, domeka

- 13:00 Goi-Alde dantza taldearen emanaldia.
- 18:00 Asto probak.
- 18:00 Umeentzako jolasak.
- 20:30 Sari banaketa.
- 21:00 Jaien amaiera eta kupel husteak.

Plentzia San Kristobal jaiak

Txipio auzoko festak txikiak izan arren, xarma handia dute

Itsasadarraren beste aldean egon arren, izaera propioa duen auzoa da Txipio. Hala udako jaien hasiera bertan ospatzen dela esan daiteke. Auzo honetako jaien ospakizunaren erdigunean eskola dago, hainbat ekintza bertan egiten baitira, hala nola umeentzako ekintzak, dantzak, zezensuzkoa edo aire zabaleko zinema. Festak Errotabarriko futbol zelairaino ere hedatzen dituzte, Walking Football txapelketagaz. ◀

Uztailak 10 eta 11

Uztailak 10, barikua

- 11:00 Txupinazoa eta txistulariak.
- 12:00 Lore-eskaintza eta aureskua.
- 17:00 Umeentzako jolasak eta tailerrak, eskolako patioan.
- 19:00 Dantza-saioa, Plentziako Itxas Eder taldearen eskutik, eskolako patioan.
- 20:00 Kantujira, Plentzia Kantaguneren eskutik, eskolako patioan.
- 20:00 Talo-jana, eskolako patioan.
- 21:30 Zezensuzkoa, eskolako patioan.
- 22:00 Aire zabaleko zinema.

Uztailak 11, zapatua

- 09:30-14:00 Walking Football San Kristobal txapelketaren X. urteurrena —IX. Kendal Kopa—, Errotabarrin.



Txori Alai Kirol Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen Rabu Txapelketak Antsonekoa plaza usain gozoz beteko du uztailaren 11.

Rabu Eguna ez da bakarrik Urdulizko lehiaketa gastronomiko bat; herri-giroa, belaunaldien arteko elkargunea, omenaldia eta jai-eguna uztartzen dituen hitzordua da. Urtero, urduliztarrak egun honen zain egoten dira lekuko ohiturakaz disfrutatzeko.

Aurten, bezperan, Beti Lagunak abesbatzak emanaldia eskainiko du Itziar Madariagaren oroimena presente izanda. Zapatuan, txupinazoaren ostean, txistularien kalejiragaz, Iratxo Gorria dantza-taldeak piztuko du giroa; gero, amonen eta aititen omenaldia egiteko.

Azkenik, Josepa Kale-Kale taldearen lagun-tzagaz, kuadrillek jai-giroa alaitzen duten birtartean, sari-banaketa egingo dute. ◀



Urtero bezala, goizetik arrastiraino, Rabu Egun ezin hobea ospatzeko guztia prest daukate Urdulizko herritarrek.

Egitaraua

Uztailak 10, barikua

20:00 Beti Lagunak abesbatzaren emanaldia, 4. urteurrena ospatzeko; Itziar Madariagaren omenezko memoria

Uztailak 11, zapatua

07:30 Txupinazoa eta jaiaren hasiera.

09:00 Txistularien kalejira herriko toki ezberdinetatik, eta izen-ematearen irekiera.

12:30 Iratxo Gorria dantza-taldearen emanaldia. Goiza txistulariek girotuko dute.


12:45 Izena emateko epearen amaiera.

13:00 Amonen eta aititen omenaldia, eta ondoren luncha.

13:30 Kazolen aurkezpena eta epaimahaiaren balorazioa.

17:30 Sari-banaketa eta jaiaren amaiera, Josepa Kale-Kale taldearen eskutik.

Argitu enigma bitxiak Warrenekin batera ezohiko abentura hauetan



Taberna Ibiltaria 26 urte kaleak kantuz betetzen

«Gure helburua jendearekin integratzea da, abestuz bat egin eta ondo pasatzea»

ANDER ZARRAGA ▶

Taberna ibiltaria hitz gutxitan deskribatzeko eskatuz gero, «musikarekiko zaletasuna ardatz duen kuadrilla bat» direla diote beraiek. Egia esan, hori baino askoz gehiago egiten du mende laurdena bete duen talde honek; izan ere, gure artean hain errotuta dagoen eta, batez ere, festa-giroan, jendea hainbeste elkartzen duen tradizioa dute ardatz: kantatzea. Gainera euskara eta euskal kultura hauspotzea da beraien ardatzetako bat.

Nondik sortu zen ideia? Ba modurik inozoenean. Bazkari batean, txoko batean, norbait abesti bat kantatzen hasi zen, beste batek beragaz bat egin zuen, gero beste abesti bat etorri zen... Beste batek esan zuen, «orain ondo etorriko litzaiguke gitarra bat». Gitarra agertu zen. Beste kanta batzuk etorri ziren ostean, eta, afaltzera zetozenentzako txokoa utzi behar, eta «taberna batera joan eta jarraitu egingo dugu». Tabernan kantatzera animatu ziren ezezagunak zeuden. «Tabernaz aldatu beharko da, ezta?». Jendeak jarraitu egin gintuen eta gehiago batzen joan ziren... Itzela izan zen!

Hortik aurrera, hiru hilabetero geratzen hasi ginen, aldi bakoitzean herri eta txoko desberdinean. Eta bitartean, «nik badut lagun bat honekin gozatuko lukeena». Eta norbaitek aurretik joan gabeko beste txoko bat ezagutzera gonbidatzen gintuzten. Gaur arte. 26 lagun eta 26 urte.

Taberna bat baino gehiago zarete: kultur gunea, harremanetarako tokia... Zein da zuen helburu nagusia? Askok izan leikez, baina modu batera edo bestera, horiek behintzat bai. Lehenik eta behin: ondo pasatu eta gustuko duguna egiten benetan gozatu, kultura sustatzen eta euskara bultzatzen gure aletxoak jartzen dugula jakinda. Eta, gainera, ikusten dugunean jende asko hurbildu eta dibertitzen dela eta guk beste gozatzen duela, esan dezagenu misioa bete dugula.

Zuen ustez, gaur egun halako topagune informal eta herrikoiak gehiago falta dira? Ez da erraza. Beste gauza guztietan bezala, eremu publikoa erabiltzen duenak erne egon behar du eta begirunea izan behar du bestee-



20 kideetik gora osatzen dute herriz herri kantuan aritzen den taldea. TABERNA IBILTARIA

Talde bizkaitarra

Hainbat herritako kideek osatzen dute Taberna Ibiltaria: Mungialdekoak, Txorierrikoak, Lemoizkoak, Getxokoak, Leioakoak, Elorrikoak, Bakiokoak... «Hainbeste lekutakoak izanda, bizkaitarrak garela esan beharko», diote.

2000. urtetik
«Batzuetan errazagoa eta beste batzuetan konplikatuagoa izan da, baina urte hauek deskribatzeko hitz bakarria erabili beharko bagenu, zoragarria izango litzateke hori. Hori bai, 26 urte oso azkar pasatu direla esan genezake, ez direla luze egin, ezta gutxiagorik ere»

kiko, bere ideia edo hobby edo dena delakoarekin bat ez datozenekin. Gainera, horrelako zerbait daukazunean, konpromiso pixka bat jarri behar zaio kontuari. Oinarri horrekin, pertsona desberdinen artean edozer partekatze espazioak, modu natural batean sortzen dira eta gizartearentzat positiboak izango da beti horrelakoak edukitzea.

Nolakoa da kalean, oholtzarik gabe, zuek egiten duzun moduan musika egitea? Eszenatokiak bere abantailak ditu, baina jendearengandik baztertzen zaitu, eta gure helburua, hain zuzen ere, jendearekin integratzea eta abestuz jendeak gurekin bat egitea da, denok ondo pasatzeko. Jendea benetan hurbiltzen zaigula da onena, kantatzeaz gain, hitz egiten digutelako, galdetu egiten dutelako... Saihestu beharreko gauza bakarria da norbaitek estropezu egin eta zerbait haustea, baina oso arraroa da horrelakorik gertatzea. Oro har, jendea oso ondo portatzen da beti.

Zuen programan ikusi dugu eskualdetik ez zaretela arituko uda honetan, hori oraindino aldatu daiteke? Oraingoan, uste dut Getxon bakarrik izango dela, urtero bezala, abenduaren 23an, Gabonetan. Gure jarduerak ixteko moduagatik, baliteke emanaldi gehiago izatea, baina ezin ziurtatu. Ekitaldi baterako norbait gurekin harremanetan jartzen denean, ekitaldian parte hartzeko agenda librea duten kideak adituten ditugu, eta, betiere, gutxieneko pertsona-kopurua baldin badago, saioa aurrera doa. Beraz, bai, aukeratutako egunean gutxieneko jende kopuru bat badugu, programa aldatu daiteke oraindino. ◀



Armintzak eta Jamaikak bat egingo dute giro ederrean

Armintzako Karmengo jaiak uztailaren 15etik 19ra ospatuko dituzte aurten, kuadrillen eguna, mozorroak, herri-bazkaria... 18ko Txapel Reggae izango da hitzordu nagusietako bat.

Jaiak uztailaren 15ean, eguaztenean, hasiko dira Kuadrillen Egunagaz. 2008ko kintoez botako dute txupina eta irakurriko dute pregoia, 18:00etan, eta ondoren umeen zein nagusien triatloia egingo dute. Uztailaren 16an, eguenean, Karmengo Eguna ospatuko dute. Goizean umeentzako jolasak eta puzgarriak izango dira, eta txistulariak herrian zehar ibiliko dira. Arrastian, 18:00etan, Karmengo Amaren omenezko meza egingo dute, eta ondoren itsasorako prozesioa. Egunari jarraipena emateko, ur-jolasak, pala-txapelketako finalak, langostino-jana txosnan eta DJ Ikerren saioa izango dira.

TXAPEL REGGAE. Aurtengo Txapel Reggaeak Jamaika, Kanariak, Menorca, Brasil eta Euskal Herria lotuko ditu musikaren bidez. Biobizz Portua Stage agertokian Jah Mason jamaikarra izango da kartelburu, Riddim Factory Band taldeagaz batera; horrez gain, Junior Dread brasildarra, Dactah Chando kanariarra, Rudymentari eta Steady Rockets euskal taldea ere arituko dira. Spannabis Dub Stage guneak, berriz, 12 orduko sound system egitaraua eskainiko du, Blackboard Jungle eta Irie Ites nazioarteko erreferenteakaz, baita Herrimin feat. Beñaranks, Ital Rakka eta KBLESS feat. Lurrikara bezalako proposamenak ere. Edizio honetako berrikuntza nagusietako bat Txiki Yard izango da, familiar eta umeek jaialdia modu parte-hartzailean bizitzeko sortutako espazioa.

Jaiak uztailaren 19an, domekan, amaituko dira Nagusien Egunagaz. 13:00etan hamaiketako egingo dute nagusientzat, eta ondoren tortilla-txapelketa, bingoa, mariachia eta playback txapelketa izango dira. 23:00etan traka botako dute, Armintzako jaietako amaiera emateko. ◀

Uztailaren 15etik 19ra



Kuadrillen Eguna

Uztailak 15 eguaztena

- 18:00** Txupinazioa eta pregoia, 2008ko kintoen eskutik.
- 18:30** Umeen triatloia eta nagusien triatloia.
- 20:30** Bafleptoteoa.
- 22:00** Afari-herrikoia.
- 00:00** Kuadrillen jolasak.

Karmengo Eguna

Uztailak 16, eguena

- 11:00** Umeentzako jolasak eta puzgarriak.
Txistulariak herrian zehar.
- 18:00** Karmengo Amaren omenezko meza. Ondoren itsas-prozesioa.
- 19:30** Ur-jolasak.
- 20:30** Pala-txapelketako finalak.
- 21:30** Langostino-jana txosnan.
- 23:00** DJ Iker.

Mozorro Eguna

Uztailak 17, barikua

Gaia: Mahai-jolasak, jolasak eta jostailuak.

12:00 Umeentzako tailerrak.

17:00 Pala-partidak.

20:00 Mozorro-jaitsiera.

23:30 Argitu erromeria.

Txapel Reggae

Uztailak 18, zapatua

- 12:00** Batukada herritik zehar.
- 12:00** Dantzaldia portuko txosnan.
- 12:00** Txiki Yard parkean.
- 13:00** Sound Systema skateparkean.
- 21:00** Kontzertuak portuan.

Nagusien Eguna

Uztailak 19, domeka

- 13:00** Nagusientzako hamaiketako.
- 14:30** Tortilla-txapelketaren aurkezpena txosnan.
- 17:00** Bingoa.
- 18:30** Mariachia.
- 20:00** Playback txapelketa.
- 22:00** Txokolatada.
- 23:00** Traka eta jaien amaiera.



Apurtuarte kluba izango da aurtengo pregoalaria Asun

Uztailaren 17tik 19ra bitartean, hainbat jarduerakaz ospatuko dituzte erandioztarrek Asuko jaiak.

Uztaileko hirugarren astea, Asuko jaietako giro-onagaz gozatzeko asmoagaz helduko da erandioztarren-tzat. Aurten, pregoilariak Apurtuarte Klubeko kideak izango dira, 100. urteurrena bete baitu taldeak. Hori dela eta, haiek izango dira zapatuan egun osoko egitaraua prestatuko dutenak, adin eta mota guztientzako ekintzakaz: futbol txapelketa, dantza-ekitaldia eta sokatira txapelketa, besteak beste. Gaean, Orekka erromeria izango da egunari amaiera borobila emango diona.

Aurreko egunean, barikuan, Zutik elektrotzarangakoak izango dira gaua piztuko dutenak; eta, domekan, berriz, EinGO taldea izango da arrastia animatuko duena, eta Asuko jaiak ixteko ardura izango duena. ◀

Uztailaren 17tik 19ra

Uztailak 17, barikua

- 17:00 Mus txapelketa.
- 19:00 Kalejira txistulariekaz.
- 20:00 Sardina dastaketa eta Igel-lehiaketa.
- 23:00 Zutik elektrotzaranga. Ostean... musika txosnatan!

Uztailak 18, zapatua

- 10:30 Umeen txapelketa Arteaga zelaian.
- 11:30 Beteranoen partida Arteaga zelaian.
- 13:00 Triki poteoa auzoko tabernetatik.
- 13:00-17:00 Puzgarriak.
- 14:30 Sukalkia aurkeztu.
- 15:00 Sukalkia batu.
- 17:00 Sari-banaketa.

- 17:30 Euskadiko lur gaineko sokatira txapelketa.
- 19:45 Apurtuarte, Goi Alde eta Goiherriren arteko senidetzea.
- 20:00 Goi Alde dantza taldearen emanaldia.
- 21:30 Burduntziak.
- 22:30 Txapela Brava.
- 00:30 Orekka erromeria. Ostean... musika txosnatan!

Uztailak 19, domeka

- 11:30 Meza eta meza osteko luntxa.
- 12:30 Goi Alde eta Gorantzaileak taldeen dantzaldia.
- 15:00 Herri-bazkaria.
- 17:00 Bingoa.
- 18:00 Bezkaloatea EinGO taldeagaz.
- 20:00 Jaien akabua.

makro

HARAGIAREN ERREFERENTEAK

VERÓNICA FERNÁNDEZ
Harategi-burua



MIKEL POBLACIÓN
Etxanobe jatetxearen
sukaldaria

SOPELAKO JAIAK

2026

SAN PEDRO EKAINAK 25-29 JUNIO
KARMENAK UZTAILAK 15-19 JULIO
STA. MARINA UZTAILAK 20 JULIO

Rubén Lucas García



Uztailaren 15tik 19ra

Dena prest dago Sopelako udako jaien bigarren txandarako!

Sopelako Karmen jaiak uztailaren 15etik 19ra ospatuko dituzte. Aurten, Kiribile Sopelako Eraztun Berdearen Aldeko Elkarte arduratuko da pregoia irakurtzeaz eta txupina botatzeaz.

Musika-eskaintzari dagokionez, Etzakit, Rise to Fall, The Clams, Okiro Kume, Manny Calavera, Ziin and The Melody Breakers eta Xiberoots taldeek joko dute, eta Losa Gainean kontzertuak ere egingo dituzte txosnagunean.

Era berean, urtero legez, jai-batzordeak adin guztietako herritarrentzako jolasak, kirol-proba, lehiaketa gastronomikoak eta beste hainbat hitzordu prestatuko ditu denek ezin baino hobeto pasatzeko aukera izan dezaten. ◀



Uztailak 15, eguaztena

- 18:30 Parrillada, Jubilatuen Etxean.
- 19:00 Poteo musikatua, Urgitxieta plazatik abiatuta.
- 19:00 Jaien hasierako kalejira, Loiola Ander Deuna kaletik, surfliaren eskulturaren paretik, abiatuta.
- 19:45 UK Foto elkarteak antolatutako Sopelako IX. Argazki Rallyaren sari-banaketa.
- 20:00 Pregoia eta txupinazoa, Kiribile Eraztun Berdearen Aldeko Elkartearen eskutik.
- 20:30 Umeentzako diskofesta, Urgitxieta plazan.
- 20:30 *Mi gran noche ye-yé* musika-ikuskizuna, Jorge Cánovasen eskutik, Jubilatuen Etxean.
- 21:00-00:00 Alkohol-kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko informazio-karpa, Urgitxieta plazan.
- 22:15 Zezen-suzkoa, Urgitxieta plazan.
- 23:00 Etzakit taldearen kontzertua, Urgitxieta plazan.

Karmen Eguna

Uztailak 16, eguena

- 11:00-14:00 Umeentzako jolas-parkea eta tailerrak, Urgitxieta plazan, *0 eta 12 urte bitartekoentzat.
- 11:00 Meza nagusia, San Pedro elizan.
- 12:00 Kalejira, Barinatxe Txistu Taldeagaz.
- 12:00 *Hip, hip, ura* euskarazko umeentzako animazioa, institutuko patioan.
- 13:00 Lagun Artea Abesbatzaren kontzertua.
- 17:00-20:00 Gazteentzako jolas-parkea, futbol-zelaian, 11 eta 16 urte bitartekoentzat.
- 17:00-20:00 Umeentzako tailerrak, Urgitxieta plazan.
- 17:00-19:00 Txalaparta-tailerra, Urgitxieta plazan, Gertu Sopelaren eskutik.
- 18:00 Triagoma-txapelketa, Iberoeta parkean, Nikola Basterretxea eta Mikel Altonaga «Kako»ren omenez.
- 19:00 Pintxo-txapelketa, txosnagunean.
- 20:00 Dantza-gaua: *Nahas, Un'we eta Sangre y Clorofila* dantza-pieza laburrakaz, institutuan.
- 20:00 Txokolate-jana, Urgitxieta plazan, Gertu Sopelaren eskutik.
- 20:15 XXXVII. Futbito Txapelketaren finalak, Urko kiroldegian. Ondoren, sari-banaketa.

ARTOLOZAGA

Tailerrak ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

hamilton

Language Cert

APPROVED TEST CENTRE

- 22:15** Zezen-suzkoa, Urgitxieta plazan.
22:30 Rise to Fall taldearen XX. urteurreneko kontzertua eta The Clams taldearen *Mujeres del Soul* musika-ikuskizuna, Urgitxieta plazan.

Uztailak 17, barikua

- 10:00-14:00** Karmen jaietako 3x3 txapelketa, Urko kiroldegian, Ugesaski taldearen eskutik. Umeen eta kadeteen kategoriak.
11:00-14:00 Txu-txu tren, Gatzarriñe kaleko autobus-geltokitik.
11:00-14:00 Umeentzako jolas-parkea, Urgitxieta plazan, 4 eta 12 urte bitartekoentzat.
11:00-14:00 Arku-tiroko tailerra, Urkoko makaldian, D'Arco Sopela klubaren eskutik. Adin guztietarako; 10 urtetik beherakoek heldu bategaz joan beharko dute.
17:00-20:00 Txu-txu tren, Gatzarriñe kaleko autobus-geltokitik.
17:00-20:00 Umeentzako jolas-parkea, Urgitxieta plazan.
17:00-20:00 Umeentzako tailerrak, Urgitxieta plazan.
17:00-20:00 Arku-tiroko tailerra, Urkoko makaldian.
18:00-21:00 Karmen jaietako 3x3 txapelketa, Urko kiroldegian, junior eta senior kategorietan.
20:00 *El juego de la boca* gaztelaniazko nagusientzako kale-antzerkia, institutuko patioan.
20:30 Kuadrillen arteko playback-txapelketa, Iberoeta parkean.
22:15 Zezen-suzkoa, Urgitxieta plazan.
22:30 Okiro Kume eta Manny Calavera taldeen kontzertuak, Urgitxieta plazan.
00:00-03:00 Puntu Morea zerbitzua, Urgitxieta plazan.

Egun tematikoa

Uztailak 18, zapatua

- 11:00-14:00** Umeentzako jolas-parkea, Urgitxieta plazan.
11:00-14:00 Umeentzako tailerrak, Urgitxieta plazan.
11:00-14:00 Txu-txu tren, Gatzarriñe kaleko autobus-geltokitik.
12:00 Tavole testurik gabeko umeentzako zirku-ikuskizuna, institutuko patioan, Zirko Tzoko konpainiaren eskutik.
12:30 Kalejira, Sopela Kantari taldearen eskutik.
14:30 Herri-bazkaria, Urgitxieta plazan. Txartelak Laiak, Etxehi Berria eta Kux Kux tabernetan eta Turismo Bulegoan eskuratu

ahal izango dira uztailaren 12ra arte. Helduak 15 euro eta umeak 8 euro.

- 17:00-20:00** Txu-txu tren, Gatzarriñe kaleko autobus-geltokitik.
17:00-20:00 Umeentzako jolas-parkea, Urgitxieta plazan.
17:00-20:00 Umeentzako tailerrak, Urgitxieta plazan.
18:00 Sopelako V. Boxeo Jaialdia, Urko kiroldegian, amateur, emakumezkoen eta gizonezkoen borrokaldekin.
18:30 Jota-kontzertua, Acordes Navarros taldeagaz, Iberoeta parkean.
22:00 Kodizia. Late Night gaztelaniazko nagusientzako kale-antzerkia, institutuko patioan, Barsanti konpainiaren eskutik.
22:30 Ziin and The Melody Breakers eta Xiberoots taldeen kontzertuak, Urgitxieta plazan.
00:00-03:00 Puntu Morea zerbitzua, Urgitxieta plazan.

Uztailak 19, domeka

- 10:30** Marmitako-txapelketa, Urkon. Kazolak 14:00etan aurkeztuko dira, eta ondoren sariak banatuko dituzte.
11:00-13:00 Xake-jolas librea, Urgitxieta plazan, Izurde Beltzak elkartearen eskutik.
11:00-14:00 Gazte eta helduentzako ur-parkea, Urko futbol-zelaian. Bainujantzia eraman beharko da.
11:00-14:00 Txu-txu tren, Gatzarriñe kaleko autobus-geltokitik.
11:00-15:00 Artisautza-azoka, Urgitxieta plazan.
11:30-14:00 Kalejira, Sopelako Panderojoleagaz.
12:00 XXXIX. Folklore Bizian Jaialdia, Urgitxieta plazan, Camagua taldeagaz —Kuba—, Rico Benu Gas taldeagaz —Madagaskar— eta Andra Mari Dantza Taldeagaz —Galdakao—.
13:30 Lasterketa nudista, Barinatxe hondartzan, Munarri Atletismo Taldearen laguntzagaz. Izen-ematea doakoa izango da eta egunean bertan egingo da.
16:30 Familia, ume eta gazteentzako diskofesta, Urkon.
16:30 Bitsaren jaia, Urkon.
17:00-20:00 Txu-txu tren, Gatzarriñe kaleko autobus-geltokitik.
17:00-20:00 Gazte eta helduentzako ur-parkea, Urko futbol-zelaian.
20:00 Losa Gainean kontzertuak, txosnagunean.
21:00 Makil hotsak dantza-ikuskizuna, Urgitxieta plazan, Hika Teatroa eta Oinkari dantza-taldeen eskutik, UKEM Abesbatzaren laguntzagaz.

Kafetegia
GOXO BREAK
 Ogidenda



- ore amarekin egindako osia
 - gozari bereziak
 - pintxoak

gatzarriñe, 14 A-LONJA, LARRABASTERRA

4BIDE PINTURAK
 Etxez-etxeko banaketa!

- Pintura eta berniz lanak
- Paper margotuak
- Zoruak

📍 Loroño, 2 SOPELA ☎ 685 732 104
 ✉ 4bidepinturak@gmail.com ☎ 946 762 992

Oinutsik
 Podologia kontsulta
 Nahia Andrés Bilbao (Kol. Zb. 236)




Zubigane 4, SOPELA • 94 404 74 20
 podologiaoinutsik@gmail.com



Plentzian festak ez du etenik

Karmengo jaiak

Uztailak 16, eguena

- 11:00 Txupinazoa.
- 12:00 Karmengo Ama Birjinaren omenezko meza, elizan.
- 13:00 Txaranga, Eleiz enparantzatik portura.
- 18:00 Karmengo Ama Birjinaren jaitsiera, elizatik itsasontzira.
- 18:30 Itsas-prozesioa. Arkoteren trainerak irekiko du prozesioa; ondoren, Ama Birjinaren itsasontzia eta izena eman duten gainerako parte-hartzaileak joango dira.
- 19:30 Karmengo Ama Birjinaren omenezko aureskua eta Salbea.
- 19:30 Dantza-saioa, Plentziako Itxas Eder taldearen eskutik.
- 21:45 Zezensuzkoa.

Uztailak 17, barikua

- 18:00 Pala-txapelketa, Jai Alai frontoian.
- 19:30 Sardina-jana. Edalontzia norberak eraman beharko du.
- 20:00 Kantujira, Plentzia Kantaguneraren eskutik, portuan.
- 21:45 Zezensuzkoa.
- 22:00 Oilar Beltzak taldearen emanaldia.

Uztailak 18, zapatua

- 10:00 Marmitako-txapelketarako izen-ematea.
- 11:00-14:00 Umeentzako jolasak.
- 14:00-14:30 Marmitakoaren aurkezpena.
- 15:00 Sari-banaketa.
- 18:00 Bertso-poteoa portuko tabernetatik.
- 18:00 Salseo.
- 21:45 Zezensuzkoa.

Uztailak 19, domeka

- 19:00 Plentziako Emakumezkoen II. Esku Pilota Txapelketako finalaurrekoak, Jai Alai frontoian.

Madalentu jaiak

Uztailak 18, zapatua

- 14:00 Tortilla-lehiaketa, Isuskitzan. Bi kategoria egongo dira: umeak eta helduak —18 urtetik gorakoak—.
- 21:00 Jam Blues & Soul Sessiona.

Uztailak 19, domeka

- 13:00 Paella-lehiaketa.
- 17:00 Sari-banaketa.
- 18:00 Social SBK.

Uztailak 20, astelehena

- 18:00 Bitsaren jaia.
- 20:00 Got Talent.

Madalenak

Uztailak 21, martitzena

- 19:30 Txupinazoa, Madalentuaren eskutik, eta agurra, Itxas Ederren eskutik. Ondoren, Eingo taldearen kantujira Madalentuakaz, herrian zehar.
- 20:00 Madalena's Cup II. kronoeskalada.
- 21:00 Natural BPM.
- 22:00 Zezensuzkoa, futbito-zelaian.

Uztailak 22, eguaztena

- 11:00 Txupinazoa txistulariakaz.
- 11:30 Madalentu eta Udalbatzaren kontzentrazioa Ontziola plazan, Eleiz enparantzara igotzeko.
- 12:00 Meza Madalen Mirena deunaren omenez, eta aureskua.
- 13:30 Musika-bandaren kontzertua, Ontziola plazan. Euria eginez gero, elizan.
- 15:00 Fanfarriaz girotutako koktela.
- 18:00 Umeentzako puzgarriak, futbito-zelaian. Euria eginez gero, Jai Alai frontoian.
- 18:00 Nagusientzako bingo-arrastia.
- 21:30 Lehian taldearen erromeria.
- 22:00 Zezensuzkoa, futbito-zelaian.

Saratxagako jaiak

Uztailak 29, eguaztena

- 12:30 Aire zabaleko meza, Arriolane garagardotegian.
- 13:00 Aureskua eta luntxa. Luntxean parte hartzeko, uztailaren 25era arte eman beharko da izena Arriolane garagardotegian edo Turismo Bulegoan. Prezioa: 10 euro.
- 15:00 Bingo musikatua.

San Inazio jaiak

Uztailak 31, barikua

- 11:00 Diana eta txistulariak.
- 11:00 Haurrentzako tailerrak.
- 13:00 Meza.
- 18:30 Dantza-saioa, Plentziako Itxas Eder taldearen eskutik.
- 20:30-23:00 Disko-festa.
- 22:00 Zezensuzkoa, Azurtegiendo plazan.

Sopela Santa Marina Eguna

Gora auzoko ohiturak!

Uztaila iritsi orduko, Larrabasterrak badaki kaleak luzatu egingo direla, agurrak beroagoak izango direla eta «bost minuturako» irteandakoa gauerdira arte luzatuko dela. Santa Marinako jaiak ate-joka daude!

Santa Marina jaietan ohitura zaharrek badute lekua oraindino. Erromeriak, bertsoek eta elkarregaz batzeko modu horrek erakusten dute tradizioa ez dela erakusleihen batean gordetzen den zerbait; erabiltzen denean, bizi dela, hain zuzen. Eta hemen, belaunaldi batetik besteari pasatzen dio lekukoa, kantuan, barre artean edo mahai baten bueltan.

Kalejira, meza nagusia, ohorezko aureskua, hamaiketakoa eta bazkaria izango dira egunean zehar, eta arrastian erromeriak emango dio jaiari azken bultzada. Baina egitarautik harago, horien atzean dagoena da garrantzitsua: auzoko ohiturei eustea, elkar ikusteko aitzakia izatea eta belaunaldien arteko haria bizirik mantentzea. ◀

Egitaraua

Uztailak 20, astelehena

- 10:00** Kalejira Barinatxe Txistu taldearen eskutik. Motorrak berotzen hasteko plan ezin hobea!
- 11:00** Meza nagusia Santa Marina Baselizan.
- 11:30** Ohorezko aureskua eta lore-eskaintza Fernando Ansoleagaren omenez.
- 12:00** Bertarutzen direnentzat mokadutxoak egongo da, trikitiaren soinuagaz lagunduta.
- 14:00** Bazkari herrikoa. Hurbildu zaitetz zure lagun taldeagaz bazkaltzera!
- 17:00** Patata tortilla lehiaketa. Nork prestatuko ote du tortilarik onena? Zure sukaldatzeko gaitasuna erakusteko unea da hau!



18:00 Erromeria eta sari-banaketa. Gorputza mugitu gura? Hurbildu zaitetz eta gozatu Santa Marinako jaietz!

Urduliz Santa Mariñe eguna

Mendi-magaleko festa

Santa Mariñe eguna heltzeaz dago eta urduliztarrek jardueraz betetako egitarauagaz ospatuko dute tradizioz betetako egun hau.

Aurreko urteetan bezala, tortilla-txapelketagaz hasiko dituzte jaiak. Bertan, auzotarrek aurkeztutako tortillen zaporea, egosketa, gatz-putua, eta aurkezpena baloratuko dituzte epaimahaikideek aurtengo irabazlea nor izango den hautatzeko helburuagaz. Bitartean, arrastiko 16:00etatik 19:00ak arte, Sarkidi erromeriaren doinuek piztuko dute bertako giroa.

Astelehenean, jai honi bukaera bikaina emateko asmoagaz, azken urtean amak izan diren emakumeentzako ohorezko aureskua egingo dute baselizaren ondoan. Horren ostean, dantzak egingo dituzte Santa Marinetik Antsonekoa plazaraino, dantza taldeen eta buruhandien laguntzagaz; eta, eguna amaitzeko, saltxitxa-ogitartekoak bananduko dituzte Antsonekoa plazan. ◀

Egitaraua



Uztailak 18, zapatua

- 12:00-13:30** Tortilla-txapelketaren izen-ematea.
- 14:00** Tortillen aurkezpena.

- 16:00 - 19:30** Sarkidi Erromeria Tradizionalaren kontzertua.
- 18:00** Tortilla-lehiaketaren sari-banaketa.

Uztailak 20, astelehena

- 11:30** Eliz aurretik Santa Marineko Baselizaraino igoera txistulariak lagunduta.
- 12:00** Meza Nagusia.
- 13:00** Ohorezko aureskua azken urtean ama izan diren emakumeentzat.
- 13:15** Hamaiketakoa.
- 19:00** Santa Marinetik Antsonekoa plazaraino jaitsiera dantza taldeekin eta buruhandiek.
- 20:00** Saltxitxa-ogitartekoa.

Getxo Nazioarteko Folklore Jaialdia

Mundua dantzan, Getxon

Batzuetan, munduari bira emateko ez da hegazkinik hartu behar. Uztailaren 18tik 20ra, Getxoko Nazioarteko Folklore Jaialdiak aukera hori eskainiko du Muxikebarrin: hiru egunetan, hiru kultura ezberdin igoko dira oholtza gainera, dantzaren, musikaren eta tradizioen bidez munduko txoko desberdinetara bidaiatzeko.

Jaialdiak badu urtero errepikatzen den magia berezi bat: ez da dantza ikuskizun huts bat; herri bakoitzak bere nortasuna, historia eta bizimodua azaltzeko duen modua da. Urrats bakoitzaren, jantzi bakoitzaren eta doinu bakoitzaren atzean belaunaldiz belaunaldi transmititutako ondarea dago, eta horixe da jaialdi hau berezi egiten duena.

Aurten, Itxartu Taldeak emango dio hasiera uztailaren 18an. Getxoko taldeak euskal dantza tradizionalaren aberastasuna eta indarra erakutsiko ditu, urteetan zehar zaindu eta belaunaldiz belaunaldi transmititu den ondarea erakutsiz.

Egitaraua

Uztailak 18, zapatua

20:00 Itxartu Taldea. Euskal dantzen ikuskizuna.

Uztailak 19, domeka

20:00 Inetnon Gefpa'go. Guam uhartetik ekarritako dantzak eta ohiturak

Uztailak 20, astelehena

20:00 Ngwao Letshwao. Botswanako kultura ezagutzeko aukera paregabea!

Hurrengo egunean, ikusleek milaka kilometrorra egingo dute jauzi. Inetnon Gefpa'go taldeak Guam uhartetik ekarriko ditu Ozeaniako dantzak eta ohiturak. Chamorro herriaren kultura bizirik mantentzea du helburu, eta bere emanaldietan erritualak, historia eta identitatea uztartzen ditu.

Jaialdiari Ngwao Letshwao konpainiak amaiera emango dio, Botswanatik etorrira. Afrikako herrialde horretako dantza tradizionalak, erritmo biziak eta ahots-kantuak izango dira protagonista, herriaren historia musikaren eta mugimenduaren bidez partekatuz.

Azken batean, Getxoko Nazioarteko Folklore Jaialdia kulturak elkar ezagutzeko gonbidapen bezala uler daiteke. Garai honetan mundua pantaila baten bidez ezagutzea ohikoa denean, badago zerbait berezia beste herrialde bateko kultura zuzenean ikusteak, entzuteak eta sentitzeak. Muxikebarrin kultura ezberdinak batuko ditu, eta folkloreak erakutsiko du hizkuntza unibertsala ere badela. ◀

Sopela Folklore Bizian

Munduari leiho bat

Batzuetan ez da urrutira joan behar mundua ezagutzeko. Uztailaren 19an, Sopolako jaietan egingo den XXXIX. Folklore Bizian Jaialdiak horixe proposatzen du: plaza berean elkartzea Kubako, Madagaskarko eta Euskal Herriko tradizioak, dantzaren eta musikaren bidez.

Ibilbide luzea duen jaialdi honek hainbat urte daramatza mundu osoko herrialdeetako aberastasun kulturalaren adierazgarriak diren taldeak Sopolako Larrabasterrako jaietara ekartzen.

TALDEAK. Kubatik etorriko da Conjunto Folclórico Camagua. Camagüey hirian sortutako taldeak Kubako folkloreaken aberastasuna erakusten du, bereziki afrikar, europar eta karibetar sustraien arteko nahasketa. Bere emanaldiek erritmo, energia eta kolore handia izaten dute, eta Kubako kultura herrikoia isla dira. Taldea 2011n sortu zen, eta ordutik nazioarteko hainbat jaialditan parte hartu du, Kubako folkloreaken enbaxadore bihurtuz.



Hamarkadak kulturak lotzen

Antolatzaile den Galdakaoko Andra Mari Euskal Dantza Taldeak urteak daramatza Euskal Herriatik kanpoko taldeak harremanak eraikitzen, euskal diasporako eta mundu osoko dantzariak kultur trukea sustatuz hainbat jaialditan.

Madagaskarko ordezkaria Benja Gasy izango da. Taldearen berezitasuna herrialde osoko sei probintzietako musika, dantzak, jantziak eta ohiturak emanaldi bakarrean biltzen dituela da. Hori dela eta, askotan Madagaskarko kulturaren erakusleihu txiki gisa definitzen du bere burua.

Eta nazioarteko gonbidatuakaz batera, etxeko ordezkaria ere izango da jaialdian: Andra Mari Dantza Taldea. Galdakaoko taldeak euskal dantza tradizionalaren ondarea ekarriko du Sopolara, belaunaldiz belaunaldi transmititu diren doinu, urrats eta ohiturak plazara eramanez. Horrela, jatorri oso ezberdinetako kulturak agertoki berean batuko dira.

Azken batean, Folklore Bizian jaialdia kulturak elkar ezagutzeko eta partekatzeko gonbidapena dela esan genezake. Herri bakoitzak bere historia kontatzeko modu bat du, eta dantzak nahiz musikak dira horretarako hizkuntza unibertsaleko bat. ◀

Jai-batzordea Ospakizunen etorkizuna kolokan

«Jai txikiak galtzearen beldur gara»

Santa Anako jaiak lau lagunek baino ez dituzte egiten posible. Erreleborik ezean, Jai-batzordeko kideek ez dute ospakizun hauen etorkizuna argi ikusten.

IZARO GARCIA ▶

Jaiak hiru egun baino ez badituzte ere, prestaketak urte hasieran abiatzen dira. «Urtean zehar lau katu gara lan guztia egiten dugunak», aitortu dute. Ez dira asetero elkartzen, ezta eguneroko bilerak egiten ere. Urtarrilean hasten dira lehen urratsak ematen, bakoitzak bere bizitzagaz uztartu behar duen lan boluntario bati ekinez. Batzuk auzotik kanpo bizi dira, besteek ordutegi zailak dituzte, eta horregatik bilerak gutxi dira; lana, ordea, ez.

Kanpotik denak erraza dirudi: kontzertuak, etxeko txikienentzako jolasak, kirola edo bazkariak. Baina ekitaldi bakoitzaren atzean telefono-deiak, baimenak, bilerak eta antolakuntza daude. Jai-batzordean argi dute hori guztia errazagoa izango litzatekeela taldean jende gehiago egongo balitz.

Arazoa, haien ustez, auzoaren errealitatean dago. «Ez dago benetako bizitza bat auzoan», diote. Gazte askok egunerokoa Areetatik kanpo egiten dute, eta horrek zaildu egiten du, modu batean edo bestean, harremanak sortzea eta belaunaldi berriei lekukoa pasatzea. Hala ere, jaietan auzotar askok laguntzeko prest daudela azpimarratu gura dute: «Hutsunea urte osoan zehar nabaritzen da, ez bakarrik jaietan».

OROITZAPENAK OINARRI GISA. Nekea pilatzen denean, askotan haurtzaroko irudiak datozkie burura. Amantzio tronpalaria, futbol 3ko txapelketak edo txapel-jaurtiketan aitari irabazi zion lehen aldia dira gogoan dituzten horietako batzuk.

Egun, ordea, beste une batez geratzen dira; hau da, plaza berean hurrak, gazteak, gurasoak eta adinekoak elkarregaz ikustea. Hori da, haien esanetan, «jai herrikoi baten benetako zentzua».

Uztailaren 24tik 26ra

Uztailak 24, barikua

- 17:00** Puzgarriak etxeko txikienentzako, Santa Ana plazan.
- 19:00** Txupinazoa eta buruhandiak. Jaiak hasi dira!
- 20:30-21:00** Sardina-jana Santa Anako plazan. Hurbildu mokadutxo bat hartzera!
- 21:00** Bingo musikatua Santa Anako plazan. Abesti guztiak ezagutzen al dituzu?
- 22:00** Kontzertuak plazan bertan.

Uztailak 25, zapatua

- 10:30** Xake-lehiaketa, plazan.
- 14:00** Tortilla txapelketa. Nork sukaldatuko ote du tortillarik onena?
- 16:00** Koadrilen arteko txapelketa, Santa Anako plazan.
- 17:00** Mus txapelketa, Amara Berria tabernan.
- 18:00** Puzgarriak, Santa Ana plazan.
- 18:30** Igel-toka eta txapela jaurtiketa txapelketa, plazan.
- 19:00** Magia ikuskizuna publiko guztientzako, Santa Ana plazan.

20:30 Saiheski-jana, plazan. Usain goxoa nabari da daborduko... ez galdu!

22:30 Kontzertuak.

Uztailak 26, domeka

- 11:30** Futbol txapelketa. Publiko orori irekita.
- 12:00** Puzgarriak etxeko txikienentzako, Santa Ana plazan.
- 13:00** Euskal dantzak tokiko euskal dantza taldeen eskutik.
- 14:00** Paella txapelketa, Santa Ana plazan. Bigarren aukera duzu zure sukaldatzeko gaitasunak erakusteko!
- 16:30** Ur-guda eta apar-festa. Gorputza freskatzeko aukera paregabea!
- 18:30** Herri kirolak, Santa Ana plazan.
- 20:00** Santa Ana jaietako sari-banaketa, plazan. Irabazleentzako bat izango ote zara?
- 21:30** Karaokea, plazan. Oraindik indarrak geratzen bazaizkizu, hurbildu eta gozatu!
- 22:30** Zinema, Santa Ana plazan.
- 23:30** Traka finala eta jaien bukaera. Datorren urtera arte!

«Jaiak galtzearen beldur gara». Horixe da urtez urte lanean jarraitzeko arrazoirik handiena. Haiak desagertuko balira, auzoko jaiak ere ez liratekeela gaur ezagutzen ditugun modukoak izango diote: «Jai-batzorderik gabe, Santa Anako jaiak meza soil bat izango lirateke».

DEI BAT BELAUNALDI BERRIEI. Etorkizunari begira, ez dute mirari handirik espero. Bai, ordea, jende berria gerturatzea. Azaldu dute, jaietako egitura ez da urtero goitik behera aldatzen, eta pertsona gehiagoren artean lana askoz arinagoa izango litzateke.

«Gu hemen egongo gara transmisio hori egiteko», diote. Ez dute lekua utzi gura, baina badakite jai herrikoi batek bizirik jarraitzeko ezinbestekoa dela belaunaldi berriek ere pausoa ematea. Azken batean, Santa Ana auzoko jaiak ez dira hiru eguneko egitarau bat bakarrik, urte osoan isilean lanean aritzen diren lau lagunen konpromisoari esker pizten den sua dira; auzo oso batek elkartzeko eta oroitzen berriak sortzeko aitzakia. Eta, haien hitzetan, «hori galtzea, auzoaren zati bat galtzea da». ◀



Santa Ana jaiakaz abiatuko da festen segida Berangon

Uztailaren 24tik 26ra ospatuko dituzte aurten Berangoko jai patronalak, XVII. mendeko baselizaren inguruan batuta.

Santa Ana inguruko auzoa asko hazi da azken urteotan, eta etxez inguratuta geratu da. Horrek auzoko itxura aldatzeaz gain, bizitasuna ere eman dio inguru horri. Horren inguruan ospatuko dituzten jaien egitaraua uztailaren 24an hasiko da, 18:00etako txupinazoagaz; ondoren, herri-krosa, Berango Kantariren kalejira, zezensuzkoa, Txerri Ugerrak taldearen kontzertua eta Nonbait erromeria izango dira. Hurrengo egunetan, txirringularitza-lasterketa, txokolatada, Disko Txiki emanaldiak, Ilbarri, Zopillotes Txirriaos eta DJ Bullen saioak egingo dituzte. Uztailaren 26an, santuaren egunean, meza, nagusientzako hamaiketakoa, tortilla- eta koktel-lehiaketa, igel-toka, goitiberen jaitsiera, umeentzako herri-kirolak, sardina-jana eta mariatxiak izango dira jaiak borobiltzeko. ◀

Uztailaren 24tik 26ra

Uztailak 24, barikua

- 18:00** Txupinazoa, erraldoiak eta buruhandiak.
- 18:45** Herri-krosa.
- 19:00-20:30** Berango Kantari abesbatzaren kalejira.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 23:00** Txerri Ugerrak taldearen kontzertua.
- 01:00** Nonbait taldearen erromeria.

Uztailak 25, zapatua

- 11:00-12:30** Txirringularitza-lasterketa.
- 13:30** Bilbainadak, Los Txinberos taldeagaz.
- 18:00** Txokolatada.
- 18:30-20:30** Asto-probak.
- 19:00-20:30** Umeentzako Disko Txiki emanaldia: Dantzatzeko Prest.
- 20:30-21:30** Ilbarri taldearen kontzertua.

- 23:00** Zopillotes Txirriaos taldearen kontzertua.
- 01:00** DJ Bull.

Uztailak 26, domeka

- 12:00** Meza.
- 13:00** Nagusientzako hamaiketakoa eta Otxandategi Dantza Taldeko umeen emanaldia.
- Ordutegirik gabe Tortilla- eta koktel-lehiaketa, alkoholagazko eta alkoholik gabeko modalitateetan.
- 13:00** Igela-txapelketa.
- 17:00** Goitiberen jaitsiera.
- 18:00-19:00** Umeentzako herri-kirolak.
- 18:30-20:30** Asto-probak.
- 19:00-20:30** Umeentzako Disko Txiki emanaldia: Buelta eta Bira.
- 19:00** Sardina-jana.
- 20:30** Mariatxiak.



**NEBARREBAK
TABERNA**

Sabino Arana 20, Berango
ONDO PASA JAIETANI



Sabino Arana Kalea, 25 • BERANGO
Tel. 946 682 604

**TXARRA
CAFE-BAR**



LANTZARTE AUZOA 16
48640 BERANGO

Mundua, bagoaz.

BANOOOA GO!

Irentsi mundua LABORAL Kutxaren GO! txartelarekin.

EZ du komisiorik Estatu osoko 10.000 kutxazain baino gehiagotan*.

EZ du komisiorik, LABORAL Kutxaren aldetik, atzerriko kutxazainetan**.

EZ du komisiorik dibisa aldatzeagatik.

EZ DU KOMISIORIK, EZ HEMEN*, EZ ATZERRIAN**

* Zure probintzian dirua komisiorik gabe ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu; zure probintziaz kanpo, berriz, entitate hauetako kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide.

** LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 14 eta 29 urte bitartekoa (biak barne). Horrez gain, 18 urtetik aurrera nahitaezkoa izango da entitate honetan Bizum aktibatuta izatea.



LABORAL
kutxa

Kukulus kuadrilla 2026ko jaietako pregoilariak eta txupinerak



«Txupinazoa eta jaitsiera dira guretzat unerik berezienak»

Aurtengo jaietan Gorlizko udaletxe balkoira Kukulus kuadrillako kideak aterako dira jaitsieraren aurretik pregoia botatzera eta Santiago jaietara hasiera emango dien txupina jaurtizera.

Aurten jaietako pregoia zuek botako duzue, zer mezu bidaliko diezue gorliztarrei eta jaietz gozatzen hurbilduko direnei? Guk herriari bidali nahi diogun mezua da denontzako jaiak nahi ditugula, dibertigarriak, eta horiek inklusiboak eta parte-hartzaileak izatea nahiko genukeela.

Nolakoa da Kukulus taldea? Kukulus 18 urtetik gorako nesken kuadrilla izan zen hasieran, baina, orain, 9 urtetik gorako 40 bat kide gara. Erabat inklusiboak gara taldean, horregatik bertokoak nahiz udatiarrak onartzen ditugu; ez dugu bereizkeriarik egiten.

Kukulus kuadrilla 2000 urtean sortu zen, jaitsieraren ostean, hainbat langun-talde desberdinetako neska batu zirenean. Aurten, beraiei egokitu zaie jaietara hasiera iragartzea uztailearen 24an.

Aurten 25 urteko ibilbidea ospatuko duzue kuadrilla bezala, nolakoa izan da esperientzia? Esperientzia oso dibertigarria, super polita eta gogobetegarria izan da guretzako.

Urteurrena ospatzeko zerbait berezia prestatzen ari zaretela esan digute... Noski baietz ez dakizue ondo! Baina etorri eta zuen kabuz ikusi beharko duzue!

Zein da Gorlizko jaietatik unerik bereziena zuentzako? Txupinazoa eta jaitsiera dira guretzat jaietako unerik berezienak. Kuadrilla guztiak batuta gauden momentu ikusgarria delako; herri osoa egoten da hor.

Bukatzeke, nola deskribatuko zenituzkete Gorlizko jaiak? Aste nagusiaren ondoren, Gorlizko jaiak dira onenak! Kar-kar! Txantxa da! Gorlizko jaiak dira hoberenak! ◀

Azin-Azin

Hanburgesa bikainak eta askoz gehiago.

Pintxo bereziak, sasoiko proposamenak eta giro aparta!

Gorliz

Etorri bisitan!

Uztailaren 24tik 28ra

Uztailak 24, eguena

- 14:00 Jai-giroa baflepoteoagaz, Elexalden.
- 15:00 Herri-bazkaria, Estratakoetxen, frontoian euriagaz.
- 16:30 Jokoak gazteentzat, Eliz plazan.
- 19:30 Pregoia eta txupinaren jaurtitzea.
- 20:00 Kuadrillen jaitsiera, Itsasbide kaletik Ondarganaraino.
- 22:00 Zezensuzkoa, Ibarreta plazan.
- 22:30 Puro Relajo, Ibarreta plazan.
- 00:00 Holy Rippers eta Akerbeltz, Elizako parkingean.

Uztailak 25, barikua

- 10:00 37. Nekazaritza Azoka, Agirre plazan.
- 11:00 Txu-txu tren.
- 11:30-15:30 Ur parkea umeentzat.
- 11:45 Triki kantu poteoa, Elizako plazatik Ondarganaraino.
- 12:00 Mezan Coro Lirain Abesbatza, Elizan.
- 12:30 X. Kronoeskalada, Taberne Aurren.
- 12:45 Aureskua, Aratz Taldeagaz, Eliz plazan.
- 15:00 Herri-bazkaria, San Pedro plazan.
- 17:30 Sagardotegi ibiltaria, San Pedro plazan.
- 18:30 Playback. 16 urtetik beherakoak. Gero, sari-banaketa. Ibarreta plazan.
- 21:00 Zezensuzkoa, Ibarreta plazan.
- 22:00 Playback. 16 urtetik gorakoak. Gero, sari-banaketa. Ibarreta plazan.
- 00:30-01:45 Kontzertua: Süne, Elizako parkingean.

Uztailak 26, zapatua

- 09:00 45. Bakailao Txapelketa. Estratakoetxen, frontoian euriagaz.
- 11:00-14:30 39. Artisautza Azoka, Artzelu plazan.
- 11:00-15:00 Umeen parkea, Artzelu plazan.
- 11:30 Tortilla-txapelketa. Adina: 13-18. Estratakoetxen.
- 12:00-13:30 Eskubaloitailerra, Ibarreta plazan.
- 12:30-14:30 Fanfarrea, Elexalden.
- 12:30 Tortillen aurkezpena, Estratakoetxen, frontoian euriagaz.
- 13:00 Bakailao aurkezpena, Estratakoetxen, frontoian euriagaz.
- 14:00 Tortillen sariak, Estratakoetxen, frontoian euriagaz.
- 15:00 Bakailaoen sariak, Estratakoetxen, frontoian euriagaz.
- 18:30-20:30 Fanfarrea, Elexalden.
- 19:00 28. Mozorro Lehia-desfilea, Itsasbide kalean.
- 20:30 Txistorrada Urris taldeagaz, Ibarreta plazan.
- 21:30 Mozorroen sari-banaketa, Ibarreta plazan.



Uztailak 27, domeka

- 11:00-14:00 Saskibaloia, Ibarreta plazan.
- 11:00-14:30 39. Artisautza Azoka, Artzelu plazan.
- 11:30-13:00 Zezen puzgarriak, Eliz plazan.
- 13:00 Madalena tailerra, San Pedron.
- 13:00-15:00 Kuadrillen baflepotea.
- 15:00 Kuadrillen bazkaria.
- 17:00-20:00 XII Xake partidak *Josete gogoan*, Agirre plazan.
- 18:30-20:30 DJ. Pako. Dantzatzeko prest, San Pedro plazan.
- 18:30-21:30 *Zutik* elektrotzaranga, Eliz plazan.
- 22:00 Zezensuzkoa, Itxasbide kalean.
- 23:30-01:00 *Muxtruk* erromeria, Elizako parkingean.

Uztailak 28, astelehena

- 12:30-14:30 Bitsa jaia, Ibarreta plazan
- 13:30-15:00 Jubilatuentzako luntxa, San Pedro plazan.
- 14:00 Rumba kalea, San Pedro Plazan.
- 19:00 Bertso-saioa, Elizako parkingean.
- 20:30 Fanfarrea, Elexalden.
- 21:00 Igoera: fanfarrea + taldeak + Deabru Beltzak. Itxasbidetik Eliz plazara.
- 22:00 Kuadrillen sari-banaketa eta Urriaren erretzea, Eliz plazan.



EROSKI center Gortiz
Pol. Sagastikoetxe, manzana 1
Tel. 946 774 101

EROSKI city Gortiz
Iberre Zeharbide, 1
Tel. 946 774 220

EROSKI city Plentzia
Areatza, 1 · Tel. 946 774 281



Itxasbide 13,
GORLIZ 48630

Etzeko pintxoak
Askotariko konbinatuak
Garagardo eta ardo eskaintza zabala
Ostegunetan...pintxo-pote!

☎ 605 721 172 / 944 346 974
✉ newtavern@outlook.com
cafepubnewtavern.multiespaciosweb.com



TAILER ETA DENDA MULTIMARKA · Tel.946 774 859
Pol. Sagastikoetxe - Artzeta, 15 - GORLIZ
www.gortizbiker.com · info@gortizbiker.com





Nazioarteko Paella Lehiaketa Aixerrotako landetara bueltatuko da uztailaren 25ean; getxoztar askorentzako, parekorik ez duen ospakizunik bereziena zalantza barik.

Uztailak 25, zapatua

- 10:30** Nazioarteko Paella Lehiaketan izen-ematea.
- 12:00** Txalaparta deia UKTESTEN eskutik.
- 12:05** Aurreksua.
- 12:10** Dantza emanaldia Itxas Argia dantza taldeko txikien eskutik.
- 13:30-14:30** Paellen aurkezpena.
- 17:30** Sari-banaketa.
- 18:30** Erromeria Lehian! taldeagaz.

Getxoko festarik internazionalena

Jai hau gutxik bezala ezagutzen du Eskarne Unanue Itxas Argia elkartearen presidentea. Berak 15 urte daramatza 1958an sortu zen euskal kultura sustatzeko sortu zen talde getxoztarraren zuzendaritzan, eta karguagaz batera, Aixerrotako Nazioarteko Paella Lehiaketa antolatzea ere egokitu zaio urteotan. «Betidanik ezagutu ditut paellak, txikitatik, eta niretzat ez dago hoberik», dio.

Berak antolakuntzan daramatzen urteetan jaia asko aldatu dela aitortu du: «Giroa beti izan da izugarri ona, baina azken urteetan 'makrojalai' kutzua hartu du. Lehen ere bisitariak etortzen ziren, noski, baina orain, gazte asko eta asko etortzen dira beraien 'litroekin', eta hori lehen ez zen gertatzen. Hala ere, jairik onena izaten jarraitzen du».

Ospakizunak ospakizun, Unanuek deitoratu du festa antolatzeak gero eta lan gehia-



«Antolatzailerak izan barik, getxoztar bezala, niretzat ez dago jai hoberik; txikitatik nator eta ez nuke ezergatik aldatuko»

ESKARNE UNANUE
ITXAS ARGIAKO LEHENDAKARIA

go exijitzen diela: baimenak, paperak, trami-teak... «Lehen errazagoa zen dena». Horrez gain, belaunaldi berriei antolakuntza-lanetan ere parte-hartzeko deia egin die: «Erreleboa egongo balitz nik pozik utziko nieke besteei gauzak antolatzen, baina jendea falta zaigu horretarako».

EREMU GUTXIAGO. Aurreko urteetan pinudira sarbidea galarazi bazuten, eremu horretako ingurumena babesteko, bada, aurreko urteetan pinudiaz gain, sarbidearen ezkerrean dagoen eremura sartzea ere debekatuko duela. Azaldu dutenez, ingurumen-arriskuak minimizatzeko hartu dute erabakia, Hiri Antolamenduko Plan Orokor (HAPO) berriak gune hori Ingurumen Hobe-kuntzako gune gisa babesten duelako. ◀



**LXXI NAZIOARTEKO
PAELLA LEHIAKETA**

UZTAILAK 25 ZAPATUA

Ondo pasa!



Turismo arduratsua, hurbilekoa eta landa-ikuspegitik goatzeko prest

Uda honetan, Uribe On Tour 7. edizioa kostaldeko eta barnealdeko eskaintza turistikoagaz eta esperientziak beteta bueltatuko da uztailean eta abuztuan.

Programaren helburua Uribe Bizkaiko kalitatezko helmuga turistiko adimendun moduan sendotzen jarraitzea da. Beraz, horren bidez, lekuko jardueren laguntzagaz, esperientziak betetako uda eskaintzen dute.

Eskualde honetako paisaiaren edertasunak, herriek, bertako jendeak eta uda-sasoian martxan jartzen diren kultur, arte, gastronomia eta aisialdi ekimenek bisitari ugari erakartzen dituzte urtero, turismo arduratsua, hurbilekoa eta landa-ikuspegitik goatzeko prest daudenak.

Aurtengo programak berriz ere lekuko gastronomiari emango dio garrantzia. Upategietara eta Bakioko Txakolingunera bisita gidatuak egiteko aukera egongo da. Ildo berean, garagardo artisauaren fabrikak, nekazaritza-eta abeltzaintza-azokak eta ezinbesteko hitzorduak izango dira tokiko produktuak eta eskualdeko ekoizleen lana gertutik ezagutzeko.

Hala ere, ibilbideak Uribeko herri batzuetako ondare arkitektonikoa, historikoa eta kulturala ezagutzeko bisita gidatuak ere izango ditu. Berangon, Burdin Hesiaren Oroimenezko Museoa ateak zabalduko ditu Gerra Zibilean Bilbo tropa frankistetatik babesteko helburua zuen defentsa-eraikuntza horren historia interesgarria ezagutzeko.

NOBEDADEAK. Aurten, gainera, kostaldea berrikuntza interesgarriak dator; izan ere, surf ikastaroez eta eskualdeko hondartzek eskaintzen dituzten aukera guztiez gain, Uribe On Tour programaren barruan itsasontziz egiteko hainbat irteera antolatu dira, hala nola, alturako arrantza edo San Joan Gaztelugatxera zeharkaldiak.

Eta itsasertzaren xarmari jarraituz, Uribe On Tour 2026 bere erakargarri nagusietako bategaz dator berriro: Bizkaiko flyscha. Uribe eskualdean azaleratzen den ondare geologikoaren balio turistiko handiak erakusten jarraitzen du ingurune honetan eskaintzen diren esperientziak eskatuenetakoak direla. Geologo adituek gidatutako bisitak eta abentura-jar-

Uribe On tour 2026
Euskadi / Bizkaia / Uribe

UZTAILA | JULIO
ABUZTUA | AGOSTO

www.uribe.eu

Bizkaia **EUSKADI** **JATA-ONDOR** **Uribe**
BASQUE COUNTRY **TURISMOA**

Bisita eta jarduera guztiak uztailean eta abuztuan izango dira.



Uribe On Tour programako bisita eta jarduera guztiak www.uribe.eu webgunean eskuragarri daude. Bertan, erreserbak ere egin daitezke.

duerak, hala nola 4x4 ibilbideak, izango dira paisaia ikusgarri horretako jarduera nagusiak.

Beti ere, Uribe On Toureko bisita eta jarduera guztiak uztailean eta abuztuan izango dira. Interesa dutenek, 2026ko programa osoa eta erreserbak www.uribe.eu webgunean kontsultatu ahal izango dituzte. Edizio berri honetaz, udako hilabeteetan Uribe eskualdea sustatzeko eta ezagutarazteko hitzordu garrantzitsuenetako bat finkatu da, eta, urtez urte, interesa eta asistentzia handitzen jarraitzen du. Beraz, uda honetan Uribe ezagutzeko aukera galduko duzu? •

Algorta Jai-batzordea

«Lana da, bai, baina ematen dugun adina jasotzen dugu»

IZARO GARCIA VELASCO ▶

Algortako jaiak bost egun irauten dute. Jai-batzordeko kideentzat, ordea, ia urte osokoak dira. Herritarrek kontzertuak, kuadrillak eta kaleak giroz beteta ikusten dituzten bitartean, bada hilabeteak daramatzan talde bat hori dena lotzen, koordinatzen eta antolatzen.

«Jendeak ikusten ez duen lana da handiena», diote. Izan ere, ehun jarduera baino gehiago prestatzen dituzte urtero, herriko elkarte, kirol-talde, kultur eragile eta kolektiboak batera. Jaiak ez dira inprobisatzen; elkarlanean eraikitzen dira.

Denboragaz, festak antolatzeko modua ere aldatu dela onartzen dute. Egun, segurtasunak edo espazio publikoaren erabilerak gero eta baldintza gehiago eskatzen dituzte, eta horrek boluntarioen lana zaildu egiten du.

«Lehen modu naturalagoan egiten ziren gauza asko; gaur egun, berriz, irizpide tekniko gehiago bete behar dira», azaldu dute. Hala ere, ez dute hori kexa moduan bizi gura. Alderantziz; izan ere, jaiak herrikoiak izaten jarraitzea eta, aldi berean, garai berrietara egokitzea dute helburu.

JAIK, EGUN OSOKO KONTUA. Askotan, jaiak parrandagaz lotzen dira. Jai-batzordeko kideek, ordea, beste irudi bat dute. Haien ustez, Algortako saninazioak adin guztientzat dira, eta horregatik saiatzen dira goizetik gauera



Gazteek ere euren lekua izan dezaten

«Nerabezaroaren tarte horretan ez da erraza izaten norberak bere lekua aurkitzea jaietan», dio jai-batzordeak. Horregatik sortu zuten Gazterdi Txapelketa, 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekimena. Jai-batzordearen asmoa gazteek ere jaiak lehen pertsonan bizitzea zen. Gaur egun, gero eta kuadrilla gehiagok ematen dute izena, ekimenak urtez urte indarra hartzen duen seinale.

arte denentzako tokia egiten. Horren adibide da Gazterdi Txapelketa. 12 eta 16 urte bitarteko gazteek jaietan euren lekua izan zezaten sortu zuten. «Nerabezaroan ez da beti erraza jaietan norberak bere lekua aurkitzea», azaldu dute.

Eta horrek agerian uzten du kuadrillek duten pisua; hau da, Algortako jaiak ulertzea ezinezkoa da kuadrillak aipatu gabe. Ez dira soilik parte-hartzaileak, jaiaren «bihotza» ere badira. Kaleak giroz dituzte, probetan parte hartzen dute eta, gero eta gehiago, antolakuntzako ardurak ere hartzen dituzte.

«Zorionez, azken urteetan kuadrilla berri asko batu dira», diote pozik, «belaunaldi berriek ere jaiak bizitzeko gogoia dute». Jai herrikoiei batek bizirik jarraitzeko, ezinbestekoa baita urtez urte indar berriak batzea.

SARI NEURTEZINA. Jai-batzordean egoteak ordu asko kentzen ditu, baina «jaiak beste ikuspegi batetik bizitzeko aukera ematen du antolakuntzan egoteak; lana da, bai, baina ematen dugun adina jasotzen dugu». Herriko jendea ezagutzea, eragileak elkarlanean aritzea eta denon artean zerbait handia eraikitzea da, haien esanetan, «esperientziaren benetako ordaina».

Horregatik, gero eta jende gehiagok parte hartzea gura dute. Ez bakarrik jai-batzordean sartuz, baita ekarpen txikienez ere. Izan ere, euren ustez, jai herrikoiak ez dira batzorde batenak, herri osoarenak baizik. ◀

ZERBITZU INTEGRALA
fiskala / laborala / kontabilitatea

Juan bautista Zabala kalea - 12.zk - 1.solairua - 7.dptu
ALGORTA - BIZKAIA

TEL 94 652 39 93
FAX 94 431 63 58
MOB 658 73 26 48

info@asesoriaugarte.com

irati
MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
Torre, 2 48991 - ALGORTA

bai
euskarari

Asier Martiarena Algortagraff jaialdiaren antolatzailea

Tintaz betetako Algortagraff jaialdia ospatuko dute abuztuaren 1ean

Algortagraff hiri-arte jaialdiaren irudia txipiroia izango da aurten; Asier Martiarena antolatzaileak dioenez, «txipiroiek euren tintarekin zikintzen dute, grafitigileek bezala».

LAURA FONTALBA COLOMO ▶

Aurten, Basagoiti kaletik Las Barreras tabernara, Salsidutik Ameztiara eta Telletxe plazara eramango dute Algortagraff jaialdia, herriko toki berrietara hedatzeko helburuagaz. «Las Barrerasen, tabernariengatik ez bada, ez dago ezer, eta Telletxe plazan ere ia ez da ezer egiten. Orduan, urte honetan leku gehiagotan jarriko ditugu furgonetak», azaldu du Martiarenak.

Algortagraffeko antolatzaileak dioenez, egun bakarreko jaialdia izan arren, lan asko dago horren atzean: «Artistak aurkitzea eta furguak lortzea lan handia da. Urtero pixka bat errazagoa den lana da, baina lan handia da berdin-berdin». Azaldu duenez, hainbat lekutako artistak batzen dituzte jaialdian ikuskizun artistiko desberdinak erakusteko helburuagaz; badaude bertoko artistak, baita Burgosetik, Madriletik, Bartzelonatik, Andaluziatik eta beste hainbat lekutatik etorritako artistak ere. «Hemen maila badago, orain dela bi urte Nestor Otaño, Nexgraff, etorri zen, muralista profesionala dena, baina bertako estiloak oso berdintsuak dira denak; beste leku batzuetatik etortzen direnak molde desberdinekin etortzen dira».



10 kidek osatzen dute taldea
© ASIER MARTIARENA

Abuztuak 1

- 10:00** Grafiti erakusketa.
- 11:00** Artista eta artisauen dendak, Muxikebarrin.
- 12:00** Dantza erakusketa Sanikotik hasita.
- 12:30** Umeentzako grafiti-tailerra frontoian.
- 17:00** Skate erakusketa taxi-geltokiaren errepidean.
- 17:30** Free tour furguetatik eta muraletatik Sanikotik hasita.
- 21:00** Furgoen kalejira Kasinotik hasita.
- 22:00** Saskiaren zozketa, Kasinoko eszenatokian.
- 22:15** El persianas y Los influencers muertos kontzertua Kasino Plazan.
- 00:00** DNB party Kasino Plazan.

Urteak pasa ahala, jaialdia arrakastatsua goa bihurtu da, eta, Martiarenak aitortu duen bezala, hori jaialdiaren mailaren igoeragaz doa. Lehenengo ekitaldia 2017an izan zen, jai-batzordearen laguntzagaz. Adostu zuteenez, batzordeak materialak erosiko zituen eta antolatzaileek –gaur egun 10– jaialdia aurrera eramango zuten. «2018an, tipo batek deitu zidan ea hipikako kamioi luze bat margotu nahi genuen galdetzeko», azaldu du berak, zera gehituz: «Horrela hasi ginen furgonetak eta kamioiak margotzen».

Ildo horretan, dioenez, urtero herriko hormak margotzeko baimenak eskatzen dituzte, baina hori lortzea ez da erraza. «Norbaitek sinadura edo esaldi politiko bat jartzen badu, Udalak berehala estaltzen du adabaki batekin; azkenean, horma guztiak tonu desberdinekin geratzen dira. Grafiti batekin estali ahal genuke, baina Udalak ez du nahi, grafitiei konnotazio txarra ematen baitzaie. Niri tristeia iruditzen zait», deitoratu du. Hori dela eta, dioenez, halako jaialdiak aurrera eramatea ez da erraza izaten.

Oraingoz, jai-batzordeagaz batera egiten diete aurre jaialdiaren gastuei, helburu argi batez: «Algortagraff grafitigileak artistak ere direla erakusteko aukera izan behar da; grafitia arte-adierazpena baita». ◀



Irakurri ezazu elkarrizketa osoa www.hiruka.eus webgunean edo ondoko QR kodigoa eskaneatuta.

ENBATA

Instagram: @enbata_espazioa
enbataespazioa@gmail.com / 648903112

ORDUTEGIA
Asteartetik ostiralera 9:30etik 19:00etara
Larunbatak 9:00etik 14:00etara
Astelehenak itxita
Astearteak eta ostegunak jubilatuta eguna

944 608 222
688 867 278

Alangoeta, 6
48990 Algorta
www.marsunestilistas.es

Klinika tradizionaletik harago goaz

Basagoiti Etorb. , 38
48991 GETXO

946 62 06 59

Instagram icon

clinicadental@eguibalypuebla.com

Uztailaren 29tik abuztuaren 2ra

Uztailak 29, eguaztena

- 18:00** Pregoia, 2025eko kuadrilla-txapelketaren irabazlearen eskutik, San Nikolas plazan; ikurrinari omenaldia eta txupinazoa.
- 18:30** Kuadrillen jaitsiera irekia (kuadrillen txapelketan parte hartzen duten taldeentzako nahitaezko proba), San Nikolas plazatik hasita, Telletxeko plazaraino. Gune Irisgarria Telepizza aurrean (mugikortasun zailtasunak izan ditzaketen pertsonentzako gunea).
- 20:00** XIX. Jota eta Arin-arin Txapelketa, Biotz Alain.
- 21:30** Kontzertua Katea inguruan: Mairu.
- 21:30** Gazterdigaz musika eta dantza, Telletxen.
- 21:30** Kontzertuak Amezti zonaldean: La Mara Rumbas & José de Arte.
- 21:30** Kontzertuak San Nikolas plazan: Apos Apo, Ganibet eta Pinaka.
- 22:00** Kontzertua Kasino plazan: Thrill Seekers Band.
- 22:00** Zezensuzkoa, Telletxeko errepidean.
- 00:00tik aurrera** Pintxada Lamami tabernan: Ane Vilallonga 'DJ Vila'.

Uztailak 30, eguena

- 09:30** Diana, herrian zehar.
- 11:00-14:00** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, tailerrak eta puzgarriak, Biotz Alain.
- 11:30-13:30** Ume eta gazteei begirako kirol jarduerak Bizkerreren eskutik, Telletxen.
- 11:30** Gazterdi txapelketako herri kirolak frogara, San Nikolas plazan. (Gazterdi txapelketa, 12-16 urte artekoentzako kuadrilla txapelketa).
- 12:00** Ume eta gazteentzako xake-tailerra, Biotz Alain.
- 12:30** Kuadrillentzako herri kirolen frogara (nahitaezko proba), San Nikolas plazan.
- 13:00** Bertso-saioa, Kasino plazan.
- 15:00-18:00** Gazteen eta helduen kuadrillen bazkaria (nahitaezko proba), San Nikolas plazan.
- 17:00** Kuadrillentzako bazkaloste girotua, San Nikolasetik abiatuta.
- 17:00** Kirol erakustaldia Sinnergym-egaz batera, Kasinon.
- 17:00** Zutik Eneko Caballero futbito txapelketaren finalerdiak, Batzokiko patioan.
- 19:00** Saninazioetako jaitsiera tradizionala, Lau Bidetik Ereaga hondartzako barraketaraino (nahitaezko proba).
- 19:00** Goxua banakako pilota txapelketaren finala, Argiako frontoian.

- 20:30** Kalejira eta kantu poteoa Itxasargiako Kantari-Kanta taldeagaz, Salsidu tabernatik abiatuta.
- 21:00** Kontzertua Amezti inguruan: William, Koki y Txemi.
- 21:30** Kontzertuak Kasino plazan: Kaimanak eta Eihera.
- 22:00** Kontzertua Katea inguruan: White Room Band.
- 23:30-02:30** Kontzertuak San Nikolas plazan: Mirua eta Nebula.
- 00:00tik aurrera** Pintxada Lamami tabernan: DJ Wonka.

San Inazio Eguna Uztailak 31, barikua

- 09:30** Diana, herrian zehar.
- 11:00-13:30** Umeentzako tailerrak eta puzgarriak, Telletxen.
- 11:00** Umeentzako motorren lasterketa, Tellagorri plazan.
- 11:30** Dantzari-taldeen bilkura, Kasunen.
- 11:30** Gazterdi txapelketako rally-desafioa, Telletxeko errepidean.
- 12:00** Dantzari-taldeen kalejira.
- 12:00** Meza nagusia eta ohorezko aureskua.
- 12:00-14:30** Kalejira Kutxus Areatxu fanfarreagaz, San Nikolas plazatik abiatuta.
- 12:00** Umeentzako txalaparta tailerra, Telletxen.
- 12:00** Euskarabenturako gazteen kalejira, joaldunek lagunduta, Satisgegitik Muxikebarriraino. Ondoren, gazteei harrera.
- 12:30** Kuadrillen rally-desafioa, Telletxeko errepidean.
- 12:30 -14:00** Euskal dantzen agerraldia, Biotz Alain.
- 12:30** Zumba solidarioa, San Nikolas plazan.
- 13:00** Bertso-saioa, Kasino plazan.
- 15:00** Bertso-maratoia herrian zehar.
- 17:00** Masterclass Bibarre-gaz Kasino plazan.
- 17:30** Erraldoien eta buruhandien konpartsen bilkura, Kasunen.
- 18:00-20:00** Erraldoien eta buruhandien konpartsen kalejira.
- 18:00** Nagusien luntxa, Zabala eskolan.
- 19:00** Nagusien dantzaldia Trio Mentagaz, Zabala eskolan.
- 19:00** Kalejira Txopolis fanfarreagaz, Telletxetik abiatuta.
- 19:30** Sardina-jana Katea inguruan.
- 20:30** Kontzertua Amezti inguruan: 'Habana537'.



ADI! BULEGOA


ARKITEKTURA
DISEINUA
IDEIAK

Salsidu Etorbidea 1, Algorta 48991
946 854 689 / 688 749 393
adi@adi-bulegoa.com
www.adi-bulegoa.com



hirigintza • arkitektura • ingenieritza zibila

Basagoiti etor. 69 - 1.solairua ALGORTA
www.estudiok.es 944911332



- 20:45** Larraintantza, Telletxen.
21:30 Kontzertuak txosnagunean.
21:30 Kontzertua Kasino plazan: Noran (su artifizialen aurretik eta ostean).
22:00 Zezensuzkoa, Telletxeko errepidean.
22:00 Kontzertuak Katea zonaldean: Akatz / Euskatalites. Ostean, pintxada Nebulah Selektah eta Gorkitx Selektah-gaz.
22:00 Kontzertuak San Nikolas plazan: Gobaxx, Nerede eta Koldito.
23:00 Su artifizialen ikuskizuna

Abuztuak 1, zapatua

- 09:30** Diana, herrian zehar.
10:00 IX Jose Ramon Arrupe Adiskidetasun xake-txapelketa, Zabala eskolan.
10:00etik aurrera Algortagraff grafiti-erakustaldiaren VII. edizioa herrian.
11:00tik aurrera, Algortagraff dendaren irekiera, Muxikebarrin.
11:30 Umeentzako jolas eta tailerrak Argia Fundazioagaz, Biotz Alain.
11:30 Ume eta gazteentzako kirol ekintza eta jolasak, Telletxeko plazan.
12:00 Poteo musikatua eta dantza erakusketa Aglortagraff eta Elektokat-agaz, Ameztitik hasita.
12:00 Ume eta gazteen Kantxa Kirol Moda Herri Krossa, Haria eta Getxotri elkarteek antolatuta.
12:00 Gazterdi orienting desafioa (12-16 urte), San Nikolas plazan.
12:00 Kuadrillentzako froga gastronomikoa, Muxikebarri.
12:00 Igel-toka, Jose Luis Esteban 'Joselu' zenaren omenez, Katean, Salsidu eta Villamonte tabernen laguntzagaz.
12:00 Haurrentzako grafiti tailerra Muxikebarri aurreko zuhaitzetan.
14:00 Saharar herriagaz elkartasun bazkaria, Biotz Alai plazan.
15:00 Gazte-bazkaria Muxikebarrin. Ostean, bazkaloste girotua.
17:00 II. Algortako San Inazio Xake txapelketa, Zabala eskoletan.
17:00 Mus Txapelketa, Abian tabernan.
17:00 Gazte kalejira, San Nikolasetik abiatuta herrian zehar.
17:00 Skate froga, Telletxeko taxieta, Drum&Karrok musikaz girotuta.
17:30 Algortagraff free tourra furgu eta muraletatik, San Nikolastik.
18:30 Ume, familien eta Gazterdi jaitziera, Kasinotik abiatuta.
18:30 Buruhandiak herrian zehar.
19:00 Zutik Eneko Caballero futbito txapelketaren 3. eta 4. postuak, Batzokiko patioan.
19:30 Umeentzako txokolate-jana eta dantzaldia, Biotz Alai plazan.

- 19:30** Musika pintxada Amezti inguruan: Dj Alvaro Barañano. 80. hamarkadako arrasti girotua.
20:00 Zutik Eneko Caballero futbito txapelketaren finala, Batzokiko patioan.
21:00 Weepah Sound System, Telletxe plazan.
21:00 Furgoen grafiti kalejira, Kasinoko errepidetik hasita herrian zehar.
21:30 Kontzertuak txosnagunean.
22:00 Zezensuzkoa, Xabier Imaz 'Pechotoro' zenaren omenez, Telletxe plazan.
22:00 Kontzertuak Katea inguruan: La Mambo Express eta Bidean Erromeria.
22:15 Kontzertua Kasino plazan: El Persianas y Los Influencers Muertos.
22:30 Kontzertuak San Nikolas plazan: Chuleria joder eta Sedientos de Cumbia.
23:00 Pintxada Ameztin: Iker Cemi Dj.
00:00 DNB Party, Kasino plazan.
00:00tik aurrera Lamami tabernan: Dj Wonka.

Abuztuak 2, domeka

- 08:30** XXIV. Txipiroi Lehiaketaren izen-ematea, Biotz Alai plazan.
09:30 Diana, herrian zehar.
11:00 Artisauen azoka, San Nikolas plazan.
11:00 Ume eta gazteentzako puzgarri eta tailerrak, Telletxen.
13:00 XXIV. Txipiroi Txapelketaren lapikoen aurkezpena, Biotz Alain.
13:00 Umeentzako bitsa-festa, ur-jolasak eta ur-gerra, Telletxen.
13:00 Bertso-saioa, Kasino plazan.
13:00 Mariatxiak, Katea inguruan.
17:00 Herri Kirolak, Telletxen.
17:30 Txipiroi Txapelketaren sari-banaketa eta giro berezia, Biotz Alain.
17:30 Gazterdi txapelketako emanaldiak, San Nikolas Plazan.
19:00 Kuadrillen erakustaldi-saio irekia, San Nikolas Plazan.
22:00 Zezensuzkoa, Telletxeko errepidean.
22:00 Jaietako kirol txapelketen sari banaketak, San Nikolas Plazan.
22:30 Kontzertua San Nikolas Plazan: Bidean Erromeria.
01:30 Sokasalto txapelketa, San Nikolas plazan.



Egitarau hau ez dago osorik. Ekitaldi eta jarduera guztiak ikusteko: HIRUKA.eus-en

Iñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41



Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

«Jaiak ez dira astebetean a

Itzubaltzeta/Romoko eta Pinuetako jaiak iristen direnean, kaleak musikaz, txosnez eta jendez betetzen dira. Herritarrek ikusten dutena, ordea, izozmendiaren punta baino ez da.

IZARO GARCIA ►

Oholtza gainean gertatzen den guztia-
ren atzean hilabeteetako lana dago,
eta lan hori urte osoan zehar egiten
dute Jai Batzordeko boluntarioek.
«Jendeak festa ikusten du, baina ez atzean da-
goen guztia», azaldu du Gaizka Vadillok. Jaiak
amaitu bezain laster hasten dira hurrengo urte-
tekoak prestatzen. Ez dira jaiak bakarrik: Olen-
tzero eguna, inauteriak eta urtean zehar anto-
latzen diren beste hainbat ekitaldi ere euren
esku daude, auzoko eragileak elkarlanean.

Askok uste dute kontzertuak lotzea dela lan-
ik handiena, baina hori hasiera baino ez da.
Baimen administratiboak, txosnaren hornidu-
ra, Herri Krosa, babesleak edo tabernakaz egi-
ten den koordinazioa ere lanaren parte dira.

«Txikieria diruditen gauzak ere hilabe-
te askoko aurrerapenarekin prestatu behar
dira», dio Dorkaitz Garciak. Horregatik elkar-
tzen dira martitzenero, egitekoak banatu eta
prestaketak aurrera eramateko.

Azken urteetan, gainera, lana gero eta kon-
plexuagoa bihurtu dela diote. «Gero eta bai-
men eta dokumentazio gehiago eskatzen diz-
kigute», azaldu du Vadillok. Horren ondorioz,
aholkularitza profesional baten laguntza ere



Herriko kuadrillek berebiziko garrantzia dute jaietan.

Auzoko talentua sustatzea ere bada jaien helburuetako bat. Horregatik antolatzen dute urtero Maketa Lehiaketa: talde hasiberriek euren proiektua aurkezten dute, eta irabazleak jaietako agertokian jotzeko aukera eskuratzen du. Aukera paregabea!

kontratatu behar izan dute. Hala ere, udalagaz koordinazioa ona dela azpimarratu dute, batez ere logistika eta azpiegituri dagokienez.

Egitarauaren oinarriak urtero antzekoak izan arren, berrikuntzarako tarteak ere badago. Aurten, esaterako, Arrasti Girotua (Salseoa) izango da nobedade nagusietako bat. «Ideiak beti daude; askotan, dirua da muga», diote.

BELAUNALDI BERRIEN ARNASA. Azken hila-
beteetako kezkarik handiena erreleboa izan da. Urte luzez pertsona berberak hartu dituzte ardurak, eta askok badakite pixkanaka lekukoa pasa beharko dutela.

«Animatu, bestela hau noizbait desageru-
tu egingo da». Horixe izan da auzoko gazteei

BASTE

BASTE

THE FINEST IN JAZZ
ROMO

**Food
Wine
& Jazz**

JUAN MARI

Harategia



Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

antolatzen»

egin dieten deia, eta badirudi fruituak eman dituela: lau edo bost gazte batu dira Jai Batzordera.

«Ikusten da gogoia badagoela», dio Vadillok. Belaunaldi berriek ez dute soilik esku gehiago ekarri; «ideia berriak eta etorkizunerrako lasaitasuna ere ekarri dituzte».

Baina jaiak ez lirateke posible izango Jai Batzordea bakarrik ariko balitz. Kuadrillek txosnako txandak betetzen dituzte, materiala mugitzen dute eta kontzertuetan laguntzen dute. Horrez gain, Sasieskola Dantza Taldea, Romo Futbol Taldea, ITF kolektibo feminista, merkataria eta ostalariak ere jaien parte dira.

«Jendeak programa ikustean erakunde bakar batek dena antolatzen duela pentsatzen du, baina atzean jende eta kolektibo asko dago elkarrekin lanean», nabarmendu du Vadillok.

JAIK BARRUTIK BIZITZEA. Jaiak hasten direnean, lana ez da amaitzen. «Goizeko seietan etxera joan, eta hamarretan berriro hurrengo ekitaldia prestatzen ari gara», dio Garciak. Vadillok ere antzeko irudia marraztu du: «Hiru edo lau ordu horiek inork ez ditu ikusten».

Nekea handia da, baina ordaina ere bai. «Jai Batzordean sartzen zarenean mundu guztiz desberdina ezagutzen duzu», dio Vadillok. Garciarentzat, berriz, baliorik handiena auzoko jendeagaz sortzen diren harremanak dira: «Bizitza osoan gurutzatzen zenituen pertsonekin hitz egiten hasten zara. Jaiak auzokideen arteko lotura hori sortzen dute».

Azken batean, Itzurbaltzeta/Romo eta Pinuetako jaiak ez dira zazpi eguneko ospakizuna bakarrik. Urte osoan isilean lanean aritzen den jende askoren ahaleginari esker, auzo oso bat elkartu eta bizirik mantentzeko aitzakia dira. ◀

Abuztuaren 2tik 9ra

Kuadrillen erritmora

Musika izango da, beste urte batez, Romoko jaien ardatz nagusietako bat. Aurtengo egitarauak kontzertu eta erromeria ugari bilduko ditu, baina bi hitzorduk ukitu berezia izango dute. Eguaztenean, Musika Irekia ospatuko da: kuadrillek hartuko dute DJaren lekukoa, bakoitzak bere *setlist*-a aukeratu eta txandaka jarritz. Zapatuan, berriz, Arrasti Girotuak ('Salseo') hartuko du protagonismoa. Arrastitik bertatik hasiko da festa, erritmo latinoak, dantzarako musika eta lagunartean giroaz gozatzeko proposamenagaz.



Abuztuak 4, martitzena

Txosnagunean

- Aittu Erromeria

Abuztuak 6, eguena

Txosnagunean

- Hofe eta Kiliki.

Dolores Ibarruri plazan

- Zitzada & Rlantz.
- Gablin DNB Set.
- Bubblin Sound System.

Abuztuak 7, barikua

Txosnagunean

- Hamlet.
- Nonbait Erromeria.

Abuztuak 8, zapatua

Txosnagunean

- Akatz.
- Maloa Brothers.
- Mambo Express.

Egitarau hau behin-behinekoa da; jaiak hurbildu ahala behin betikoa emango dugu HIRUKA.eus-en



XIX ROMOKO HERRI KROSA

ABUZTUAK 6 AGOSTO | 19:45 GANETA PLAZA

Izen-ematea / Inscripción | 17:30-19:30 GANETA PLAZA

*Arropa gordetzeko eremu mugatu bat egongo da, pertsona bakoitzeko fardel homogeneo bat gordetzeko.
*Se habilitará una zona acotada como guardarropa para guardar un bulto homogéneo por persona.

Antolatzaileak / Organizadores

Laguntzaileak / Colabora



NAGUSIAK ETA BETERANOAK

400M

GAZTEAK

10-15 URTE

900M

TXIKIAK

3-9 URTE

450M

Gorliz Andra Mari jaiak

Gora Gorlizko paellak!

Gorliztarrek, zein plentziarrek; bertakoek zein udatarrek asko maite duten festa da abuztuan Agirre Andra Mari basilazaren inguruan ospatzen dena.

Abuztuko lehen aste-akabuan, Santiago jaietako ajetik berreskuratu ostean, udalerrri bien arteko tontor-
txoan dagoen Agirre Andra Mari basilazaren inguruetara mugituko da jai-giroa.

Aurten, egitarauak zereginenez betetako lau egun izango ditu, tartean, umeentzako zein nagusientzako jarduerak, hala nola herri-krosa, MTB martxa eta, nola ez, paella eguna. Abuztuaren 9an, kuadrillek euren postuak jarriko dituzte Aixerrrotako paellen parekoa den, baina eskala txikiagoan, jaialdi gastronomiko honetarako. Aurten Udalak bizikidetzara-
arauak auzokideei errespetua mantentzeko eskatu die bertaratzen direnei, jaiak eskuetatik joan ez dadin. ◀

Abuztuaren 5etik 9ra

Abuztuak 5, eguaztena

- 10:00** Txupin-kalejira auzotik.
- 11:00** Meza basilazan.
- 11:45** Ohorezko aurrekoa eta dantzaldia, Aratz Dantza Taldearen eskutik.
- 13:15** Luntxa ermita atarian.
- 12:45** Trikitilariak.
- 18:00** Herri-kirol erakustaldia.
- 20:00** Kontzertua: Zipote Records.
- 21:30** Zezensuzkoa.

- 11:00** LI. Tortilla-txapelketa.
- 11:30** Umeentzako herri-kirolen tailerra.
- 12:00-14:30** Trikitilariak.
- 13:00** Tortillen aurkezpena eta sariak.
- 15:30-19:30** Umeentzako ur-parkea.
- 19:30-21:30** Umeentzako diskofesta.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 22:00** Kontzertua: Extremareaos, Extremo eta Marea taldeen tributua.

Abuztuak 7, barikua

- 19:00** Zezen mekanikoa.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 23:30** Trikitizio erromeria.

Abuztuak 9, domeka

- 11:00** LXIV. Paella-txapelketa. Debehatuta egongo da etxolak edo antzeko muntaiak egitea.
- 12:00** Trikitilariak.
- 13:00** Paellen aurkezpena.
- 18:00** Paellen sari-banaketa.
- 18:30** Salseo tardeoa, DJ Kul.
- 22:00** Zezensuzkoa. Kontuz.

Abuztuak 8, zapatua

- 09:30** IV. Bizikletada MTB.
- 10:00** XXXVII. Herri-krosa.

Erando Andra Mari jaiak

Auzoa festa bihurtuta

Erandion, Goierriko sankristobalen ostean, Erandiogoikoko andramariak hartuko dute txanda auzoko bigarren festak ospatzeko, abuztuaren 14 eta 15ean.

Erandiogoikoko Andra Mari jaiak ez dira herriko jaiak handienak, eta ez dute izan gura ere, hain zuzen ere, jai-batzordeko kideek adierazi dutenez, festa horien indarra gertutasunean baitago. «Andra Mariak etxeagoak dira», diote. Urteak pasa arren, «belaunaldi guztiak plaza berean elkartzea eta auzo osoak jaiak elkarrekin bizitzeko» xede izaten jarraitzen dute. Aurten ere, giro herrikoia izango da protagonista nagusia: trikipoteoa, jolasak eta erromeria izango dira jaietako hitzordu nagusietako batzuk. Azpimarratu dutenez, «jai-batzordean egotea jaiak beste modu batean gozatzeko modua da», azaldu dute. Haientzat jaiak auzokoen arteko loturak sendotzeko eta etxera itzultzen den oro ongi etorria sentiarazteko unea dira.



Jai-batzordeak egitaraua osatzen ari da. Hori prest dagonenean, hiruka.eus webgunean horren berri emango dugu.



Egitarauak aurreko urtekoen ildoak jarraituko du.

«Jai-batzordean egotea jaiak beste modu batean gozatzeko modua da»

Tamalez, lerrook idazteko orduan, egitaraua oraindino ez dute prest eduki, baina jai-batzordeko kideek horretan ari direla ziurtatu digute, eta dena prest dutenean hiruka.eus webgunean ere argitaratuko dugu, ezer ez galtzeko. ◀

Berangoko festak erdigunera mugituko dira bigarren txanpan

Berangoko Santo Domingo jaiak Guzmango Santo Domingoren omenez ospatzen dira abuztuaren 4aren bueltan, Santa Ana jaien ostean herriko jai-giroari segida emanez. Herriko kultura elkarteek eta kirol-taldeek antolatutako ekitaldiek osatzen dute egitaraua, eta 2026an uztailearen 31tik abuztuaren 4ra egingo dituzte.

Jaiak Berangoko udaletxearen eta elizaren ondoko landan eta hirigunean ospatzen dira, eta askotariko proposamenak batzen dituzte: kuadrillen igoera, txupinazoa, pala-txapelketak, umeentzako jarduerak, musika-emanaldiak, herri-kirolak, zezensuzkoa eta Bakailao Eguneko giroa, besteak beste. Herriko jaien artean gero eta presentzia handiagoa hartu dute santodomingoek, eta urtez urte herritarrek ez ezik inguruko lagun gehiago ere bazten dira egun horietako giro herrikoira, bereziki abuztuaren 1ean ospatuko duten jai gastronomikora. ◀

Uztailearen 31tik abuztuaren 4ra

Uztaileak 31, barikua

- 10:30** Pala-txapelketako finalurrekoak.
- 17:00** Txupinazoa.
- 17:00** Kuadrillen igoera.
- 18:00** Tiragoma-txapelketa.
- 20:00** Umeentzako Disko Txiki emanaldia: Dantza eta Dibertsioa.
- 23:00** Puro Relajo taldearen kontzertua.
- 01:00** Aittu taldearen erromeria eta berbena.

Bakailao Eguna

Abuztuak 1, zapatua

- 11:00-14:00 eta 16:00-18:00** Umeentzako ur-parkea.
- 18:00** Lehiaketetako sari-banaketa.
- 18:00** Txokolatada.
- 18:00** Kuadrillen arteko sokatira-txapelketa.
- 20:00** Idi-probak.
- 23:00** Kontzertua: Akatz.

Abuztuak 2, domeka

- 10:30** Pala-txapelketako finala.
- 11:00-14:00** Artisautza-azoka.
- 12:00-14:00 eta 17:00-20:00** Umeentzako parkea, Berango-Merana ikastetxean.
- 12:30-14:30** Umeentzako tailerrak.
- 12:30** Berango Kantari abesbatzaren kalejira eta bazkaria.
- 17:30** Futbol 7ko partidak.
- 18:00** Herri-kirolak: aizkolariak.
- 20:00** Hanburgesa-banaketa.
- 22:00** Zezensuzkoa.

Abuztuak 4, martitena

- 12:00** Meza.
- 13:00** Nagusientzako hamaiketako eta Otxandategi Dantza Taldeko umeen emanaldia.
- 17:00** Molto motorren lasterketa.
- 18:30-20:00** Umeentzako entzierroa.
- 19:00** Eskupilotako jaialdia.
- 20:00** Otxandategi Dantza Taldearen emanaldia.



JAIK 2026
Berangoko Jaiak · Guztiontzat

Jai egitaraua, eskura.

El programa de fiestas, en un clic.

-  **Egitaraua egunez egun**
El programa, día a día
-  **PDFan deskargatu**
Descárgalo en PDF
-  **Orduak, lekuak eta ekitaldiak**
Horarios, lugares y actos
-  **Jaien argazki-albumak**
Álbumes de fotos
-  **Albisteen buletina**
Boletín de novedades



Sartu hemen · Entra aquí

berangokultura.eus

Euskaraz eta gaztelaniaz · Mugikorrean · Irisgarria

LASTER · PRÓXIMAMENTE

Online ordainketa · Pago online

Antzokia · Ikastaroak · Udalekuak

Irailetik · Desde septiembre

Urizarko jaiak herri-giroan ospatuko dituzte abuztuan

Jaiak abuztuaren 13tik 16ra bitartean ospatuko dituzte Lemoizko auzoan, jai-batzordeak prestatuko duen egitarau oparoagaz.

Aitor Ezpeleta urizarko jai-batzordeko lehendakariak azaldu duenez, Izaro Uribarri, Izaskun Urrutia eta bera arduratzen dira festen antolakuntzaz, eta 13 urte daramatzate auzoko jaiak prestatzen. «Jendea beti pozik egoten da jaietan; azken finean, jai herrikoak dira», nabarmendu du. Tamalez, lerrok idazteko orduan, aurtengo egitaraua oraindino guztiz itxi gabe dute, baina iragarri dute jarduerak aurreko urteetan egindako ekintzen ildo bera jarraituko dutela.

Jaietako lehen hitzordua abuztuaren 13an izango da, egunean. Egun horretan tortilla-txapelketa, patata-dantza eta erromeria izango dira, auzoko plazan giroa berotzen hasteko. Barikuan, abuztuaren 14an, sardina-jana herrikoia egingo dute, frontenis-txapelketagaz batera, eta mariatxiek jarriko diote musika eta kolorea egunari. Egun handia abuztuaren 15ean izango da, Andra Mari egunean. Meza nagusiaren ostean aureskua egingo dute, eta eguerdi partean paella-txapelketak hartuko du protagonismoa. Azken eguna abuztuaren 16an ospatuko dute, domekan, besteak beste herri-bazkariagaz. ◀

Abuztuaren 13tik 16ra



Abuztuak 13, eguena

Txupinazoa.
Tortilla txapelketa.
Patata dantza.
Erromeria.

Abuztuak 14, barikua

Sardina-jana.
Frontenis txapelketa
Mariatxiak.

Abuztuak 15, zapatua Andra Mari Eguna

Meza Nagusia
Aureskua.
Paella txapelketa.
Mus txapelketa .
Bits-jaiak.
Dj Erromeria

Abuztuak 16, domeka

Herri bazkaria.
Tute eta briska txapelketak.
Txokolatada.
Rifa eta bingoa.
Traka eta sua artifizialak.



Egitarau hau behin-behinekoa da; osorik HIRUKA.eus-en.



Getxo San Lorentzo Azoka

Euskal produktuak protagonista gisa

Aurten ere, Algortako erdigunean egingo duten azokan baserrietako hainbat produktu fresko eta ekologiko eskainiko dituzte.

San Lorentzo Eguna ospatzeko, Algortako San Nikolas eta Biotz Alai plazak Euskal Herri osoko 50 ekoizle ingururen produktuen eskaintzagaz beteko dituzte.

Ohikoa den moduan, abuztuaren 10ean, goizeko 10:00etatik 15:00era, euskal baserriko produktuen merkaturia izango da eguneko protagonista Algortan Herritarrek, bertan, kalitate handiko hainbat produktu fresko eskuratzeko aukera izango dute, hala nola, barazkiak, frutak, gaztak, pateak, ogia, pastelak, eztiak, txokolata, sagardoa, txakolina eta landare apaingarriak. Gainera, urtero bezala, produktu ekologikoak ere ez dira faltako, ezta ohiko taloa eta musikariek alaitutako giro herrikoa ere.

Egunari amaiera ezin-hobea emateko, 20:00etan, Biotz Alai abesbatzak urteroko kontzertua eskainiko du Muxikebarri Antzokian. ◀



Euskal Herri osoko 50 ekoizle inguruk eskainiko dituzte euren produktuak azokan.

Gorliz Gandiako San Lorentzo jaiak

Gorlizen auzo guztiek daukate bere eguna, baita Gandiak ere

Gorlizko Gandia auzoa txikia bada ere, aparteko festak ospatzen ditu abuztuaren 10ean. Urteroko ohiturari jarraituz, bere saiheski-jan gozagarria egingo dute auzotar guztientzako, sagardo eta guzti. Hala ere, jaietako protagonista nagusiak auzoko umeak izango dira. 13:00etatik aurrera, umeentzako ur-parkea berriz egongo da, eta, arrasti osoan zehar, txikientzako jokoak eta zezensuzkoak egongo dira. Gaueko giroa alaitzeko, diskoberbenagaz amaiera borobila emango diote auzo txiki horretako festei. ◀



Abuztuak 10

- 13:00-17:00 Umeentzako ur-parkea.
- 14:00 Saiheski-parrillada eta sagardoa.
- 18:00-20:00 Umeentzako jokoak.
- 21:00 Zezensuzkoa. Kontuz, 4 metrora.
- 21:15-00:15 Diskoberbena.



Abuztuaren 6tik 10era Ulpiano San Lorentzo jaietara bueltatuko da! Jai-batzordeak guztia prest dauka astotxoari ongietorria egiteko; baina, nor da benetan Ulpiano?

Erandioko San Lorentzo jaietan badago mundu guztiak ezagutzen duen norbait: Ulpiano. Astotxo hori jaien ikurra da eta, urte osoa mendian pasa eta gero, herrira jaisten da auzoko jaiak ospatzera. Onintze Garcia jai-batzordeko kidea da, beraz, primeran daki zein den Ulpianoren garrantzia.

Azaldu duen moduan, urtero bilatzen dute abutzuko arratsalde bero-bero batean buru handi hori jartzera ausartzen den edonor. Denboragaz adosten duten zerbait badirudi ere, azken momentuan erabakitzen duten gaia dela aitortu du: «Beti egoten gara azken momentuan norbait topa nahian; eskerrak Astrabun jendeak oso bihotz ona duela eta beti topatzen dugula norbait buru hori jantzeko prest dagoena».

Garcia jakinarazi duenez, Ulpiano ulertzeko bi modu daude. Alde batetik, pertsonai moduan, gorpuztu eta ikusten dugun astotxo hori; eta, bestetik, Ulpiano kontzeptu gisa; jai-batzordeko kideak babesten, sostengatzen, eta horren atzean lanean ibiltzen diren Ulpianok gorpuzten duen kontzeptu hori. «Urte osoan zehar lan egiten dugu jaiak aurrera ateratzeko eta Ulpiano gorpuztu ahal izateko», adierazi du.

Jai-batzordeko kideak azaldu duenez, orain dela urte asko herriko pegatinak egiteko proposamena egin zuten. Hori dela eta, tipo bat agertu zen hainbat diseinugaz; eta horien artean astotxo bat agertu zen: «Hasieran, marrazki zuri bat zen; gero, izena jarri zioten, eta ezagunagoa bilakatzen hasi zen; urtero jartzen zuten ikur berdina pegatinetan, eta, azkenean, jendea Ulpianoren pertsonai hori eraikitzen hasi zen. Horrela sortu zen». Horri esker, orain, Ulpiano ez da bakarrik sanlorentzoetako jaien ikurra, baizik eta munduko astorik famatuena bihurtu da. ◀

Ulpiano astrabudago berriz

LAURA FONTALBA COLOMO ▶

Aurten ere Ulpianok giro eta sentipen hoberenak eramango ditu sanlorentzoetako jaietara. Oroipen hoberenak sortzea ez da lan erraza, baina, berak adierazi duen bezala, jaiaren arima izateko erabat prest dago; izan ere, munduko astorik ospetsuena da, eta hori erakusteko beharra du.

Nolakoa da munduko astorik famatuena izatea? Harro sentitzen zara? Ai ama! Eskerrak konturatu zaretela ni naizela munduko astorik ospetsuena. Zuek ez dakizue, baina urteak daramatzat Naporekin eztabaidan ea bietatik nor den ospetsuena. Eskertzekoa da jendea konturatzen joan dela nor naizela astorik ospetsuena. Egia da Napok Mari Domingiri eta Olentzerori laguntzen diela opariak eramaten urtean gau batez, eta hori oso lan ona da, ez dut ukatuko. Aldiz, nik Astrabudura festa eta giro ona ekartzen ditut, lagunekin eta familiarekin momentu ahaztezinak sortzen ditut eta hori, nire ustez, oparirik handiena da: elkarrekin egotea, ondo pasatzea, barre egitea eta auzoaz gozatzea. Azkenean, hori ezin da pakete batean sartu, eta, bai, harro nago uste dudalako eraikitzen ditudan momentu horiek oso esanguratsuak izaten direla astrabuduko herritarren bizitzetan.

Aurtengo egitarauan zein da gehien gustukoena jarduerak? Aurtengo egitarautik gehien gustatzen zaidana txikiei ongi-etorria egitea da. Urtero astrabuduar berriei ongi-etorria egiten diet. Hau da, urte honetan zehar, mendian egon naizen bitartean, jaio diren astrabuduko kide guztiei ongi-etorria egiten diet, eta euren izena eta jaiotza datarekin zapitxo bat oparitzen diet. Oso momentu berezia da niretzat, oso hunkigarria izaten delako astrabuduar berriei aurpegia jartzea, nire eskuetan hartzea... Askok gozatzen duten momentua da.

«Azkenean, ezin dugu ahaztu urtean zehar auzotar batzuek egindako lanari esker etortzen naizela, niretzako bidea marrazten eta erraztasunak ipintzen egon direlako»

Txapelketetan parte hartuko duzu edo gauean zehar aterako zara? Zein izango da zure papera? Uf, ez-ez. Nik kuadrillen arteko jaietako txapelketetan ez dut parte hartuko. Nik nahiago dut gauean ateratzea eta lagunekin gozatzea. Uf, txapelketa kontuak kuadrillako kideei utziko dizkiet.

Sanlorentzoetako jaien zeinu garrantzitsuena izanda, zein da zure erronka edo helburu nagusia? Jaien ikur ezagutzenetariko batek duen erronkarik garrantzitsuena da jendeari ikustaraztea pertsonaiatik haratago adierazi nahi duten hori. Esan bezala, astrabuduko auzotarrak elkartzeko aitzakia ematea da nire jaietako helburua. Azkenean, ezin dugu ahaztu urtean zehar auzotar batzuek egindako lanari esker etortzen naizela, niretzako bidea marrazten eta erraztasunak ipintzen egon direlako, nik herritarrokin gozatu ahal izateko. ◀

duar guztiak alaitzeko prest



Abuztuaren 6tik 10era

Abuztuak 6, eguena

- 11:00 Txikikalejira.
- 11:30 Txikitxupin.
- 11:45 Txikilekuaren irekiera.
- 12:00 RNri harrera.
- 12:15 Photocall.
- 14:00 Txikilekuaren itxiera.
- 18:30 Gaiteroen igoera.
- 19:00 Jaitsiera.
- 20:30 Pregoia eta txupinazoa.
- 20:45 Txosnen irekiera.
- 23:00 Txitxarrilloa.
- 23:30 Erratz-lehiaketa.
- 22:30 Kontzertuak.

Abuztuak 7, barikua

- 11:00 Txupina.
- 11:00 Txistularien kalejira.
- 11:00 Txikilekuaren irekiera.
- 11:00 Padel surfa.
- 11:00 Tortilla-lehiaketan izena ematea.
- 12:00 Tarta-lehiaketa.
- 13:00 Tarten aurkezpena eta sariak.
- 13:30 Film laburren materialaren banaketa.

- 14:00 Txikilekuaren itxiera.
- 14:00 Tortillen aurkezpena.
- 15:00 Tortilla eta paddle sariak.
- 18:00 3. eta 4. postuak.
- 19:00 Futbol finala.
- 21:00 Elektrotzaranga.
- 23:00 Kontzertuak.

Abuztuak 8, zapatua

- 11:00 Txupina.
- 11:00 Txistularien kalejira.
- 11:00 Sukalki.
- 12:00 Jantzi merkearen proba.
- 13:30 Sukalkiren aurkezpena.
- 16:00 Sukalki sariak.
- 17:00 Txikilekuaren irekiera.
- 17:00 Ginkana.
- 20:00 Txikilekuaren itxiera.
- 20:00 Kuadrillen afaria / Herri-afaria.
- 23:00 Guatekea.
- 23:30 Kapela-lehiaketa.
- 23:30 Kontzertuak.

Abuztuak 9, domeka

- 11:00 Txupina.

- 11:00 Txistularien kalejira.
- 11:00 Paella.
- 11:00 Txikilekua.
- 11:30 Party and Ulpiano.
- 13:00 Jantzi merkea.
- 13:30 Paellaren aurkezpena.
- 16:00 Paella sariak.
- 17:00 Umeentzako playbacka.
- 18:30 5 Bilbainos.
- 22:00 Playbacka.

Abuztuak 10, astelehena

- 11:00 Txupina.
- 11:00 Gaiteroen kalejira.
- 11:00 Olgetan solas.
- 12:00 Meza nagusia.
- 12:30 Herri kirolak.
- 13:00 Txikiginkhana.
- 13:00 Soka-aurreku.
- 13:00 Elren musika banda.
- 19:00 Alardea.
- 21:30 Film laburren emanaldia.
- 23:30 Sari-banaketa.
- 23:55 Ulpianoren agurra.

Portu Zaharrean festak

Abuztuaren 12tik 16ra



San Nikolas Eguna / Arrantzale Eguna

Abuztuak 12, eguaztena

- 16:00** Txupinazoa eta jaien hasiera. Kuadrillen jaitsiera Kasino plazatik Portu Zaharreraino, KU-KLUX fanfarreak girotuta. Jaitsiera irekitzen, 2025eko kuadrilla irabazlea, NTR, joango da. Kuadrilla Txapelketako lehenengo froga.
- 19:30** Sardina-jana Asuerkan.
- 20:00** Boxeo-jaialdi-Eklipsea, Boxeo Izarrak Txosnak antolatuta.
- 20:27** Eguzki-eklipsea Portu Zaharrean. Eguzki bereziak eramateko deia egin dute.
- 20:30** TXO panpinaren kokapena jai-batzordearen txosnan.
- 21:00** Kontzertua Portu Zaharreko plazan.
- 21:30** Agertoki nagusian 2025eko NTR kuadrilla irabazlearen pregoi-irakurketa.
- 22:00** Umeentzako zinema Doctor Pedro Bilbao plazan.
- 22:00** Kontzertuak agertoki nagusian.

Abuztuak 13, eguena

- 11:00-14:00 eta 16:30-18:30** Umeentzako parkea beheko errepidean: minimoto zirkuitua -0-3 urte-, haur-ludoteka -1-3 urte-, Fantasia puzgarri ertaina -2-5 urte-, puzgarri erraldoia -6-12 urte- eta pedaletako kart-ak, adin guztietarako.
- 11:00-14:00 eta 17:00-19:00** Erakustaldia eta hastapen-klaseak La Kantera Skate Eskolaren eskutik, beheko errepidean.
- 11:30-13:30** Umeentzako ergometro-estopada paseoa, Getxo Arraun Txosnak antolatuta.
- 11:30** Patinetako hockey hastapen-tailerra, Getxo Irristan Txosnak antolatuta, agertoki atzean.
- 14:30** Pintxo-pote feminista, Bilgune Feministaren Txosnak antolatuta.
- 16:00** Altxaldiak Portu Zaharrean. Kuadrilla Txapelketako bigarren froga.
- 18:00** Bitsaren jaialdia beheko errepidean, puzgarrien gunean.
- 19:00** Fanfarrea Portu Zaharreko plazan: Kutxus Areatxu.



Aretxondo kalea 20, 48991 Getxo

944 02 27 79

PORTU
ZAHARRA
TABERNA

Portu Zaharra, 35, 48991 Getxo

@portuzaharrataberna

gainezka egingo du

- 19:00** Buruhandi eta txistularien jaitsiera Agurra Taldearen eskutik, Teilagorritik Portu Zaharreraino.
- 19:00** Zumba Rosi, Ylenia eta Ritagaz, agertoki nagusian.
- 19:30** Sardina-jana Asuerkan.
- 21:00** Kontzertua Portu Zaharreko plazan.
- 21:00** Euskal dantza-erakustaldia murrutzar handian, Itxas Argiaren eskutik.
- 21:30** Kuadrillen antzeppen-saioa agertoki nagusian.
- 21:45** Zezensuzkoa.
- 22:15** Umeentzako zinema Doctor Pedro Bilbao plazan.

Abuztuak 14, barikua

- 10:30** Nasapuntako bertikala –Sokamuturra– hondartzan. Kuadrilla Txapelketako hirugarren froga.
- 11:00-14:00 eta 16:30-18:30** Umeentzako parkea beheko errepidean: Frozen puzgarri ertaina –1-3 urte– Txirrista Pirata puzgarri handia –4-9 urte– Demolition puzgarria –7 urtetik gora– eta pedaletako kart-ak, adin guztietarako.
- 13:00** Kantu-poteoa Portu Zaharreko plazan.
- 16:30** Umeen kuadrillen jaitsiera Kasino plazatik Portu Zaharreraino, KU-KLUX fanfarreak girotuta.
- 17:00-19:00** Eusko-diskoteka DJ Pacogaz, Portu Zaharreko plazan.
- 17:30-19:30** Gazteentzako arrantza-txapelketa Riberan. Sariak 20:00etan banatuko dituzte murrutzar txikian.
- 17:30** XII. Tokata Rugby Touch beheko belardian, Getxo Rugby Txosnak antolatuta.
- 18:00** Froga-erronka Getxo Herri Kirol Txosnak antolatuta, txosnaren aurrean, belardian, Getxo Herri Kirol Taldearen eta Iruka Crossfiten artean.
- 18:00** Helduentzako nasapuntakoa eta ur-saltoen txapelketa murrutzar handian.
- 18:00** Umeentzako nasapuntakoa murrutzar txikian. Ondoren, ahate jostailuen askatzea.
- 19:00** Ilunabar feminista Bilgune Feminista Txosnan.

- 19:00** Buruhandi eta txistularien jaitsiera Agurra Taldearen eskutik, Teilagorritik Portu Zaharreraino.
- 19:30** Sardina-jana Asuerkan.
- 19:30** Bertso-saioa Portu Zaharreko plazan.
- 21:00** Kontzertua Portu Zaharreko plazan.
- 21:45** Zezensuzkoa.
- 22:00** Kontzertuak agertoki nagusian, Gazte Txosnaren eskutik.
- 22:15** Umeentzako zinema Doctor Pedro Bilbao plazan.

Marmitako Eguna / Pijama Eguna

Abuztuak 15, zapatua

- 09:30** Marmitako Lehiaketarako izen-ematea. Autoen sarrera jai-gunearen garbiketa amaitu ostean eta 10:00ak arte egin ahal izango da; irteera, berriz, 17:00ak baino lehen. Kuadrilla Txapelketako bosgarren froga.
- 11:00** Buruhandi eta txistularien jaitsiera Agurra Taldearen eskutik, Teilagorritik Portu Zaharreraino.
- 12:30** Marmitako Lehiaketa. Marmiten aurkezpena epaileen aurrean Portu Zaharreko plazako agertokian, 14:00ak arte. Ilara eskaileteratik behera osatuko da.
- 16:00** Arrasti-girotua Jai Batzordearen txosnan.
- 17:45** Bertso-saioa Portu Zaharreko plazan.
- 18:30-20:30** Elektrotzaranga txosnetan, Gazte Txosnak antolatuta.
- 18:30** Marmitako Lehiaketaren sari-banaketa Portu Zaharreko plazan.
- 21:00-21:30** Kuadrilla Lehiaketaren sari-banaketa agertoki nagusian.
- 22:30-01:30** Kontzertua agertoki nagusian.

Abuztuak 16, domeka

- 06:00** TXOren erretzea murrutzar handian eta jaien amaierako traka.

AZKAYO

1980TIK ERAIKUNTZAREN MUNDUAGAZ LOTUTA



Tradizioak kolokan Sokamuturra eta asto-probak

Jaiak berrasmatzeko aldarria, sufrimendurik gabe

Daborduko jaiak eta ohiturak bueltan dira. Baina animaliak tartean direnean, askok galdera bera egiten dute: posible da jaiak ospatzea sufrimendurik eragin barik?

IZARO GARCIA ►

U da heltzean, herrietako plazak eta kaleak berriro betetzen dira: musika, bazkariak, kuadrillak, umeen jolasak, dantzak eta urte osoan itxarondako jai-giroa. Jaiakaz batera, ordea, tradizioak ere bueltatzen dira. Eta tradizio horietako batzuek gero eta presenteago dagoen galdera deseroso baina dakarte mahaira: denak balio du jaiaren izenean?

Uribe Kostan, galdera horrek bi adibide zehatz ditu gaur egun. Leioan, San Bartolome jaietako asto-proben aurkako herri-ekimena azken sinadurak biltzeko fasean dago. Getxon, berriz, Sokamuturra Ez plataformak Portu Zaharreko jaietan egiten den sokamuturra kentzeko eskariari eusten dio. Bi kasuetan aldarriak norabide bera dauka: jaiak ospatu bai, baina animaliak sufrimenduaren erdigunean jarri barik.

Ez dira jaien aurkako mezuak, jaiak denontzako leku atseginagoak sortzeko nahia baizik. Herri-giroari, parte-hartzeari eta tradizioari eutsi gura diote, baina egungo begiradatik. Izan ere, plataformek behin baino gehiagotan azpimarratu duten moduan, tradizioak ere aldatu daitezke: «Animalien sufrimendurik gabeko jaietara igarotzea ez litzateke konfrontazio gisa ulertu behar, elkarbizitzarako, enpatiarako eta aurrerapen kolektiborako aukera gisa baizik».

Leioan, Animaliekiko Tratu Txarren Aurkako Leioako elkarteak azken bultzada eman gura dio herri-ekimenari, San Bartolome jaietako asto-probak Udaltzaren eztabaidara heltzeko. Udalak ekimena notariotik pasatu barik tramitatzen jarraitzea onartu ostean, oztopo ekonomiko eta administratibo handiena gaindituztat jo dute sustatzaileek. Horri esker, falta diren sinadurak biltzeko aukera izango dute berriro, bai kalean jarriko dituzten informazio-mahaietan, bai Internet

Animaliekiko Tratu Txarrik Ez elkarteak argitaratutako Teresa Gamonal albaitari eta etologoaren txostenak ere norabide berean egiten du. Adituak Leioako Asto Probetako 54 bideo aztertu ditu, eta ondorioztatu du probetan animalien ongizateagaz bateragarriak ez diren hainbat faktore ageri direla: muturreko esfortzua, minaren eta estresaren zantzuak, eta zigor modura erabilitako garrasiak, uhalei tirakadak, makila edo akuiluaren kolpeak zein zerra horzdunaren erabilera.

«Animalien sufrimendurik gabeko jaietara igarotzea ez litzateke konfrontazio gisa ulertu behar, elkarbizitzarako, enpatiarako eta aurrerapen kolektiborako aukera gisa baizik»

SOKAMUTURRA EZ ETA ANIMALIEKIKO TRATU TXARRIK EZ ELKARTEAK

bidez. Sustatzaileen arabera, 2.753 sinadura baliodun behar dituzte gutxienez iristeko, eta momentuz 442 falta zaizkie.

Helburua asto-probak egiteari eta horien finantzaketa publikoari amaiera ematea da. Elkartearen esanetan, proba horietan astoak «700 kiloko harria arrastatzera behartzen dituzte», ahalik eta buelta gehien emateko, eta praktika horrek «sufrimendu fisiko eta psikologikoa» eragiten die animaliei.

SOKAMUTURRA. Getxon ere antzeko kezka zabaldu da. Sokamuturra Ez plataformak behin eta berriro eskatu du Portu Zaharreko frogak kentzeko eta animalien sufrimendurik eragingo ez duten jarduerak antolatzen. Taldearen arabera, gero eta herritar gehiagok eskatzen dituzte horrelako jaiak, eta eztabaidak gero eta presentzia handiagoa dauka.

Plataformak sokamuturra «indarkeriaren normalizazioa» dela salatu du, eta txosten zientifiko eta medikoek zezen-ospakizunak animalien aurkako tratu txar eta sufrimenduztat hartzen dituztela nabarmendu du. Horregatik, haien ustez, ez da nahikoa ohitura izatea; ohitura horrek zer eragiten duen ere begiratu behar da.

Getxoko kasuan, herri-ekimenak bide instituzionalean ez du oraingoz aurrera egin. Udalak atzera bota zuen «Animaliarik gabeko jaien alde» izeneko proposamena, 1.125 sinadurakaz aurkeztu eta herri-ekimen baterako beharrezko gutxienezko gainditu arren. Proposamenak sokamuturra eta idi-probak kentzea, halako ekitaldiak diru publikoagaz ez finantzatzea eta animalien sufrimendurik gabeko jai-ereduak sustatzea jasotzen zuen.

Hala ere, Sokamuturra Ez plataformak ez du auzia itxiztat eman. Alderdiakaz elkarrizketarako bideak irekita mantenduko dituela iragarri du, helburua jai-eredu «errespetuzkoago eta eguneratuago» baterantz aurrera egitea dela nabarmenduta.

Azken batean, Leioan eta Getxon piztutako eztabaidak galdera bera uzten du airean: nolako jaiak gura ditugu? Erantzuna gero eta ozenago entzuten da hainbat herritarren ahotan: jaiak bai, tradizioa ere bai, baina animalien sufrimendurik gabe. Tradizioak bizirik jarraitzeko modurik onena, askotan, horiek zaintzea bezainbeste berritzea ere bada. ◀



Flysch Bizkaia, lurra protagonista duen ikuskizun geologikoa

Getxo udalerraren eta Uribe eskualdearen artean Bizkaiko Flyscha azaleratzen da, Euskadiko altxor geologiko handienetakoa eta esperientzia ugari bizitzeko agertoki ikusgarria.

Talka Handia deiturikoan, duela 110 milioi urte gutxi gorabehera, Bizkaiko kostaldean formazio harritsu apertatsua azaleratu ziren, 60 milioi urtean zehar itsaspean sortu zirenak.

Altxor geologiko honen plater nagusia Flysch Bizkaia da, geologiako Masterclass harrigarri bat jasotzeko gunea baino askoz gehiago. Bere inguruneak eta paisaia-erakargarritasun handiak, gainera, abenturak eta esperientziak gustu guztietarako bizitzeko oihal pribilegiatu bihurtzen dute.

Bizkaiko Flyscheko arrokek ezkututzen dituzten sekretuak ezagutzeko aukerarik onena geologo adituek gidatutako bisitak dira. Oinez edo itsasontziz egin daitezke txango horiek. Bi modalitateetan, hainbat irteera programatzen dira interes geologikoa duten 16 lekuak bisitatzeko, bakoitza bere jatorriarekin, historiarekin eta berezitasunekin, meteorito handi baten azterretatik hasi eta itsaspeko sumendien erupzioetaraino, harkaitz forma apertatsua sorraraziz.

Baina Bizkaiko Flyschak labar, bidexka, kala eta hondartza harrigarriak eskaintzen



flyschbizkaia.eus

Eskualdeko ingurune geologiko ikusgarrienak bisitatzeko antolatzen diren jarduerak guztien eta beste askoren programazio eguneratua webgune horretan kontsultatu daiteke.

dizkigu, aisialdirako, kirolerako eta abenturarako agertoki ezin hobekak.

Flyschbizkaia.eus webgunean, ingurune ikusgarri honetan programatzen diren jarduerak guztiak jasotzen dira, modu eguneratuan.

Aukerak askotarikoak dira, eta publiko zabala biltzen dute, hala nola orain hain modan dagoen «arrastiketa», baina belaontzi modalitatean; hondartzako yoga tailerrak, familiako jarduerak, surf ikastaroak, coasteering-a, kayak irteerak...

Horrela, geoturismoa indar handiz sendotzen ari da Bizkaiko kostaldean zehar, eta horrekin batera, berekin dakartzan balio guztiak, tokiko garapenarekiko konpromisotik hasi eta ingurumena zaindu eta errespetatzeraino.

Horregatik, urtero milaka bisitari erakartzen ditu geodibertsitateak eta Bizkaiko Flyscheko arrokek ezkututzen dituzten sekretuek, eta harritura geratzen dira, halaber, bere ingurunearekin, paisaia-balio handiarekin, eskaintzen dituen aisialdi-aukera guztiekin eta, nola ez, Getxoko eta Uribe eskualdea osatzen duten 24 herrietako berezitasun kultural eta gastronomikoarekin. ◀

«Segundo batzuk izango

ANDER ZARRAGA ▶

Abuztuaren 12an, eguzki-eklipse totala ikusteko aukera egongo da Euskal Herriko hainbat lekutatik. Fenomeno berezi horren inguruan hitz egin dugu Naiara Barrado EHUko astrofisikariagaz. Eklipseak nola gertatzen diren, non eta nola ikusi beharko diren, zer neurri hartu behar diren eta halako fenomenoek zientziari eta dibulgazioari zer ekarpen egiten dioten azaldu digu.

Abuztuaren 12an eguzki-eklipse totala egongo da. Zer ikusiko dugu egun horretan? Ilargia Eguzkiaren aurrean jarriko da, eta une batez Eguzkia guztiz estaliko du. Hori da eguzki-eklipse total bat. Eklipse totaletan, Eguzkia guztiz estalita geratzen denean, une oso berezi bat sortzen da: zerua ilundu egiten da, Eguzkiaren koroa ikus daiteke eta gure inguruan ere aldaketak sumatzen dira.

Ilargia, Eguzkia eta Lurra etengabe ari dira gurutzatzen, baina horrelako eklipseak oso gutxitan gertatzen dira, zergatik? Jende askok galdetzen du hori: Ilargia hilerio pasatzen bada Lurraren inguruan, zergatik ez dago eklipse bat hilerio? Arrazoa da Ilargiaren orbita ez dagoela guztiz plano berean Lurraren eta Eguzkiaren orbitarekin. Apur bat inklinatuta dago, bost gradu inguruko angeluan. Eskala planetarioan bost gradu asko dira. Horregatik, gehienetan Ilargia Eguzkiaren gainetik edo azpitik pasatzen da gure ikuspegitik, eta ez da lerrokatze perfekturik gertatzen. Eklipse bat izateko, hiru gorputzek oso lerrokatuta egon behar dute.

Euskal Herritik ondo ikusi ahal izango da? Printzipioz, bai. Kostaldeko hainbat lekutatik ikusi ahal izango da, baina kontuan hartu behar da eguraldiaren menpe egongo gara. Egun horretan lainoa badago, edo lanbroa sartzen bada, ikusteko aukera galdu daiteke. Nik gomendatuko nuke aurreko egunetan eguraldiaren iragarpena ondo begiratzea. Hemen zerua estalita egongo bada, agian komeni da Burgos ingurura edo eguraldi hobea izan dezakeen beste leku batera mugitzea.

Nola ikusi dezakegu eklipsea? Kontu handiz. Ez da inoiz Eguzkiari zuzenean begiratu behar, oso arriskutsua delako, eta begietan kalte larria eragin dezakeelako. Ez dute balio eguzkitako betaurreko arruntek. Betaurreko



Abuztuaren 12ko eguzki-eklipsea bete-betean



«Gure ikerketa-taldean atmosfera planetarioak aztertzen ditugu. Eguzki-sistemako planetekin hasi ginen: Jupiter, Saturno eta horrelako planeta erraldoiekin. Planeta horiek atmosfera oso aberatsak dituzte, haize bortitzak, zurrunbiloak eta fenomeno atmosferiko oso interresgarriak. Ni bereziki Jupiterren atmosferan aritu naiz lanean: Jupiterren haizeak, hodeiak, zurrunbiloak, turbulentsiak eta horrelako fenomenoak aztertzen»

NAIARA BARRADO IZAGIRRE
ASTROFISIKARIA, EHUko IRAKASLEA
ETA IKERLARIA

berezi homologatuak behar dira; ISO araua duten eklipse-betaurrekoak izan behar dute. Prismaticoak edo teleskopio arruntak ere hondatu daitezke. Baina badaude metodo seguruak. Adibidez, proiektzio bidez egin daiteke: prismaticoak tripode batean jarri, Eguzkiarantz zuzendu baina begiratu gabe, eta beste aldean folio edo gainazal zuri batean Eguzkiaren irudia proiektatu. Horrela, Eguzkiaren diskoa eta eklipsearen faseak ikus daitezke. Beste aukera bat kutxa estenoipekoa egitea da: kutxa batean zulo txiki bat egin, Eguzkiari bizkarra emanda jarri, eta barruan sortzen den irudian eklipsea ikusi. Umeekin egiteko oso esperimentu polita da.

Beraz, mugitzea aukera ona izan daiteke eklipsea ondo ikusteko? Bai, guztiz. Honelako eklipse bat ez da egunero ikusi dezakegun zerbait, eta pena litzateke eguraldi txarragatik galtzea. Eguraldiaren arabera erabaki beharko da, baina mugitzea aukera segurua izan daiteke. Nik neuk ere hori egingo dut seguruenik: azken egunetako iragarpenak begiratu eta horren arabera erabaki.

dira, baina oso bereziak»



~ 21:19
Amaiera
Eklipse partziala
amaitzen da

19:31

ean hasiko da eklipsea gurean, eta maximoa 20:27ean izango da. Fenomenoaren bukaera 21:20ean helduko da.

8

graduak altueran egongo da Eguzkia horizontearen gainetik eklipsearen unerik handienean. Horrek esan gura du fenomeno oso baxu ikusiko dela zeruan, eta Uribe Kostan ezinbestekoa izango dela mendebal- ipar-mendebalderantz ikuspegi garbia duen lekuren bat aukeratzea.

100

urte baino gehiago igaro dira. Iberiar penintsulatik halako eklipse total bat ikusteko aukerarik izan gabe.

Esperientzia aurreikusi

Eklipsea behar bezala prestatzeko, eta nondik eta nola ikusiko den aldez aurretik jakiteko hainbat webgune eta aplikazio daude. Guk <https://www.treseclipses.es/eu> webgunea aukeratu dugu. Bertan simulazioak eta behategi proposenak adierazten dira, berak beste.

ikusiko ahal izango da Uribe Kostako itsasadar eta mendietatik.

Zenbat iraungo du eklipseak? Lehenengo kontaktua 19:30 inguruan izango da, gutxi gorabehera; orduan ikusiko da Eguzkiari lehenengo 'koskatxoa' kentzen diola Ilargiak. Ordubetik inguru geroago helduko da osotasunaren unea. Hemen osotasuna 30 segundo ingurukoa izango da. Baina prozesu oso luzeagoa izango da: hasieran, Eguzkia pixkanaka estaltzen joango da, gero osotasuna etorriko da, eta ondoren berriro argia berreskuratuko dugu. Beraz, aurretik ere merezi du begiratzea, baina betiere babes egokiarekin.

Zer ikusiko dugu osotasunaren unean? Eguzkia guztiz estalita dagoenean, Eguzkiaren koroa ikusiko dugu. Koroa Eguzkiaren atmosfera da, eta normalean ezin dugu ikusi Eguzkiaren argia oso indartsua delako. Baliteke izar edo planeta batzuk ere ikustea. Gainera, inguruan aldaketak sumatuko dira: argia jaisten da, tenperatura ere jaitsi egiten da, eta animalien portaeran aldaketak egon daitezke.

Zientziaren ikuspegitik, eklipseek balio handia dute? Gaur egun, ikerketari dagokionez, ez

dute lehen zuten garrantzia, baina historikoki oso garrantzitsuak izan dira. Lehen, adibidez, Eguzkiaren koroa ikusteko aukera bakarra eklipse total bat izatea zen. Gaur egun kronografoak ditugu, eklipse artifizial moduko bat sortzen duten teleskopio bereziak, eta horiei esker Eguzkiaren koroa ia etengabe ikus dezakegu. Historian, eklipseak esperimendu zientifiko handietarako erabili izan dira. Adibide ezagunenetako bat Einsteinen erlatibitate orokorraren teoria frogatzeko egindako behaketak dira: eklipse batean izarren posizioak neurtu zituzten, eta argia masa handiko objektu baten ondotik pasatzean kurbatu egiten dela egiaztatu zuten.

Beraz, gaur egun dibulgaziorako aukera handia da batez ere? Bai, hori da. Guretzat, astrofisikariontzat, egun oso berezia da, baina baita aukera ederra ere zientzia zabaltzeko. Halako fenomeno batek jende askoren arreta pizten duelako, eta hedabideek ere begirada gugan jartzen dutelako. Hori aprobeztatu behar dugu astronomiaz eta zientziaz hitz egiteko. Gainera, edozeinek bizi dezakeen esperientzia da. Ez da teleskopio handi bat edo ezagutza tekniko berezirik behar; babes egokiarekin eta toki aproposan egonda, edonork goza dezake.

Eklipseekin lotuta mito eta uste oker asko egon dira historian. Gaur egun ere gertatzen da? Bai, oraindik ere badaude uste arraroak. Horrelako fenomenoek misterio puntu bat sortzen dute: bat-batean ilundu egiten da, animaliek portaera aldatzen dute, tenperatura jaisten da... Horrek azalpen mistiko edo okerrak sortzeko aukera ematen du. Baina denak azalpen zientifikoa dauka. Ez dago ezer magikorik: Ilargia Eguzkiaren aurrean jartzen da, argia gutxitzen da, tenperatura jaisten da eta inguruko sistema naturalek horri erantzuten diote.

Eklipseen turismoa ere badago, ezta? Bai, eta nahiko handia da. Batzuek eklipseak jarraitzen dituzte munduan zehar, aurora borealekin gertatzen den bezala. Behin eklipse total bat ikusi duen jende askok beste bat ikusi nahi izaten du. 2027ko eklipsea, adibidez, Egipton oso ondo ikusiko da, eta imajinatu piramideetan eklipse bat ikustea. Horrek turismo astronomikoa mugitzen du, eta hona ere jende asko etorriko da, penintsula izango delako eklipse hau ikusteko leku egokienetako bat. ◀

Jai-batzordea Auzoko jai-eredua

«Guk gure betiko izaerari eutsi nahi diogu»

IZARO GARCIA VELASCO ▶

San Bartolomeko jaiak iristen direnean, auzoa musikaz eta jendez betetzen da. Aldiz, jai-batzordeko kideek beste irudi bat dute: «Jendeak jaiak bakarrik ikusten ditu, baina atzean lan ikaragarria dago». Ospakizunak amaitu bezain laster hasten dira hurrengo urtekoak prestatzen: kontzertuak lotzen, jarduerak antolatzen eta auzoa berriro jai giroan murgiltzeko gauza guztiak antolatzen.

«Guk gure izaerari eutsi nahi diogu», azpimarratu dute. Horregatik, euskararen, herri kirolen, erromerien eta euskal musikaren aldeko apustua egiten dute. Badakite talde komertzialagoek jende gehiago erakar dezakete, baina euren helburua bestelakoa da: «Guk beste jai eredu baten alde egiten dugu».

Beraien ustez, San Bartolomeko jaien baliarik handiena ez dago egitarauan: «Guretzat txikitatik bizi izan dugun espazio segurua da». Auzoko gazteek eta familiek askatasunez eta konfiantzaz gozatzeko moduko jaiak izatea da zaindu gura duten ondarerik handiena.

Horretarako, auzotarren inplikazioa ezin bestekoa dela nabarmendu dute. Jaiak ez dira jai-batzordearen lana bakarrik; herritar askoren laguntzari esker egiten dira posible. Azken batean, San Bartolomeko jaiak komunitatea sendotzeko topagune gisa uler daitezke. «Auzo bat ez da bakarrik bizi zaren tokia, komunitate bat da». Hori da, euren ustez, jai hauen benetako indarra. ◀

Abuztuaren 21etik 24ra



Abuztuak 21, barikua

- 18:00 Txupinazoa eta jaien hasiera.
- 18:30 III. San Bartolome Auzo Krosa.
- 19:30 Kale animazioa Berakatz taldeagaz.
- 20:30 Sardina-jan herrikoia.
- 22:00 Kontzertua: Moonshine Wagon.
- 23:30 Erromeria: Orekka.

Abuztuak 22, zapatua

- Goiza Buruhandiakaz girotua.
- 11:30 Puzgarriak.
- 11:30 Bizkaiko Sokatira Txapelketa.
- 12:00 Trikitia: Arrapaladan.
- 15:00 Herri-bazkaria, Trikitxotx.
- 17:30 Bingo musikatua.
- 19:30 Txelu & Friends.
- 23:30 Erromeria: Nonbait.

Abuztuak 23, domeka.

- Goiza Zuzterrak taldeagaz girotua.
- 11:00 LIX. Marmitako Txapelketa.
- 11:00 Txikientzako marmitako masterclass.
- 18:00 Marmitako Txapelketako sari-banaketa.
- 18:30 Asto-probak.
- 18:30 Zumba.
- 20:30 Mariatxiak: Mariachi Azteca.
- 22:00 Gazte kontzertuak: Zetalau eta S.A.D.
- 23:30 Musika txosnan.

Abuztuak 24, astelehena

- Goiza Buruhandiakaz girotua.
- 12:00 Meza eta ohorezko aurreksua.
- 13:05 Nagusientzako luntxa.
- 13:30 XIII. Igel-toka Txapelketa.
- 13:30 Margo Txapelketako sari-banaketa.
- 18:00 Puzgarriak.
- 18:30 Asto-probak.
- 19:00 XX. Euskaber Tortilla Txapelketa.
- 21:00 Tortilla Txapelketako sari-banaketa.
- 22:00 Erromeria: Oinutsik.



Ekitaldi eta jarduera guztiak ikusteko: HIRUKA.eus-en

inpresio digitala

Inprimatze Digitala Formatu Guzietan

Sabino Arana 82, 48940, Leioa
944 649 176 - 944 014 431
monkopileioa@gmail.com

KOPILEIOA

egunean behin? **hiruka**

Egunean Behin jokoaren 21. denboraldia hemen da!

animatu zaitetz eta parte hartu!

Gorliz Urezarantza jaiak

Tortilla eta sukalki onenaren bila Okarantxuko zelaietan

Gorlizko festarik herrikoienak, Urezarantzako jaiak abuztuaren erdian ospatuko dituzte aurten, abuztuaren 15ean eta 16an.

Tradizio luzeko txapelketa da Gorlizko Urezarantzako sukalki-txapelketa. Zehazki, 54 edizio daramatzate hori egiten eta. Hala ere, hori ez da izango jaietako protagonista bakarra, festa on batzuk ezin direlako disfrutatu bere tortilla-txapelketa berezirik gabe.

Janaz gainera, disko-gaua, zezensuzkoak, trikitilariak eta umeentzako ur-parkea ere izango dira, besteak beste. Ekintza guztiak bi tokitan egingo dituzte: zapatuan, kiroldegian, eta, domekan Okarantxuko zelaietan. Has dila festa! ◀

Abuztuak 15 eta 16

Abuztuak 15, zapatua

Kiroldegian

- 12:30-16:30** Umeentzako ur-parkea.
- 13:00-15:00** Luntxa trikitilariakaz.
- 16:30** Tute-txapelketa.
- 17:30** Tortilla-txapelketa. Sariak: 40 euro, 30 euro, 20 euro eta 10 euro.
- 19:00-19:15** Tortillen aurkezpena.
- 20:30-23:30** Disko-gaua.
- 21:30** Zezensuzkoa. Kontuz, 4 metrora.

Abuztuak 16, domeka

Okarantxu

- LIV. Sukalki Txapelketa.
- 12:00-15:00** Trikitixa.
- 14:30** Sukalki-txapelketako aurkezpena.
- 16:00** Mus-txapelketa.
- 17:00** Sukalki-txapelketaren sari-banaketa
- 18:00** Herri-kirolak
- 19:00** Merhezi taldea.
- 21:00** Bolo.

Erandio | Leioa Santimamiko jaiak

Auzoa pizteko prest

Abuztuan, Santimamiko jaiak ospatuko dituzte erandioztarrek eta leioztarrek. Berriz ere, berrikuntzakaz betetako bi eguneko egitaraua prestatu dute, baina betiko ohiturak mantenduz.

Abuztuaren 17tik 18ra, Santimamiko baseliza jendez beteko da festak disfrutatze helburuagaz; auzo oso txikia bada ere, Bilboko jaiei aurre egiteko prest heldu dira.

Aurten, aurreko urtean egindako igel-toka txapelketa edo mus- eta briska-txapelketak mantenduko dituzte, baina ez dira horregaz konformatuko. Astelehenean, Euskal Herriko ohiturei lotu guran, jota erakusketa egingo dute, eta, martitzenean, umeentzako dardo lehiaketa prestatuko dute. Gainera, arrastia eta gaua piztu guran, giro ezin hobea sortuko dute Diskofesta bategaz eta Luhartz erromeriaren kontzertuagaz. ◀

Abuztuaren 17tik 18ra

Abuztuak 17, astelehena

- 11.30** Txupinazo.
- 12.00** Meza.
- 12.00** Trikitria.
- 12.30** Hamaiketako helduentzat.
- 13.00** Jota erakusketa.
- 17.00** Tokiko mus lehiaketa.
- 18.00** Haurrentzako jolasak.
- 20.00** Tokiko Dardo txapelketa.
- 20.00** Parrillada.
- 20.30** Dantzatze prest.

Abuztuak 18, martitzena

- 12.00** Meza.
- 13.00** Udondoko txikitero alaituak.
- 13.30** Igel-toka txapelketa.
- 14.30** Bazkaria.
- 16.30** Triskele Basafolk.
- 17.30** Briska txapelketa.



- 17.30** Umeentzako dardo lehiaketa,
- 18.30** Diskofesta.
- 20.30** Luhartz erromeria.

Jaiak gazte berrien bultza

Jai-batzordeak lan gogorra egin du urte osoan zehar Altzagako jaiak berriz ospatzeko. Iker Jalonek jai-batzordeko kidea da, eta, aurreratutik duenez, aurten, auzoko ohiturakaz betetako egitaraua dakarte.

LAURA FONTALBA COLOMO ▶

San Agustin jaiak antolatzeko lanak urte osoan zehar egiten ditu Altzagako jai-batzordeak. Iker Jalonek jakinarazi duenez, jende gutxiren artean egindako lan gogorra da; jai-batzordea zazpi lagun inguruk osatzen baitute. Hala ere, nabarmendu duenez, aurten, zorionez, gazte berriak batu dira; aurreko urteetatik jarraitzen duten hiruzpalau laguni neska gazte batzuk gehitu zaizkie. Albiste hori ontzat hartzen dute antolatzaileek, normalean oso jende gutxik parte hartzen baitu antolakuntzan, eta haiek lanean gogotsu egoten dira urte osoan zehar.

Jalonek dioenez, urtean zehar, martitzenero batzen dira jaiak buruz hitz egiteko eta egitaraua prestatzeko, abuztuan dena prest egoteko helburuagaz. Horrez gain, herriko hainbat elkartegaz ere koordinazio-lanak egiten dituzte, programaren parte izan daitezen eta jaiak ahalik eta herrikoiak izan daitezkeen.

Aurtengo egitarauari dagokionez, kideak onartu du jaietan, askotan, aurreko urteetako ereduarekin delatzen dela eta *copy paste* moduko bat izaten direla jaiak. Horrez gain, azpimarratu duenez, badira berreskuratu gura dituzten ekimenak. Adibidez, Goitiberen jaietsiera, auzoan ohitura handiko jardura dena eta azken urte parean egin ez dutena antolatzailerik ez zegoelako. Aurten, berriz, berriro egiteko aukera aztertzen ari dira.

Ildo horretan, Kukaina ere San Agustin jaietako jardura oso ezaguna eta tradizionala dela nabarmendu du, festen ikurretako bat baita. Aurten, aldiz, ekimen hori baldintzatuta dagoela tamaldu du, itsasadarraren inguruan egiten ari diren obrak, bidegorria eta zubia direla eta. Horregatik, oraindino ez dute argi jardura hori izango den ala ez, baina aukera hori ere mahai gainean dutela iragarri du.

Jalonek ohartarazi duenez, jai-batzordeak badauka aurten kezka bat: San Agustin jaiak Bilboko Aste Nagusiagaz bat egingo dute; eta,



Zazpi lagun inguruk antolatu dute jardueraz betetako egitaraua.

Herritarrek kuadrilan, lagunekaz zein familian parte-hartzera gonbidatzen dituzte. Jaiak, gozatzeko ez ezik, herritarren arteko harremanak sendotzeko eta herria bizirik mantentzeko aukera ere badira.

dioenez, jai-batzordeari horrek jende kopuruan izan dezakeen eragina kezkatzen die: «Duda barik eragina izango du».

Egoerari aurre egiteko asmoagaz, herritarrek parte-hartzera animatu dituzte, urteroko giroari eusteko eta jaiak ahalik eta modu aktiboenean bizitzeko. Jai-batzordeak horren inguruan bidali gura duen mezua argia da: herritarrek jaietan parte hartzea oso garrantzitsua da jaien giro-ona eta herria bizirik mantentzea guztion arduraren baita; beraz, kuadrillan, lagunekaz zein familian parte-hartzera gonbidatzen dituzte. Jaiak, gozatzeko ez ezik, herritarren arteko harremanak sendotzeko eta herria bizirik mantentzeko aukera ere badira. ◀

dagaz!



Abuztuaren 26tik 30ra

Abuztuak 26, eguaztena

- 13:00 Pregoia eta txupinazoa.
- 13:15 Erraldoiak eta kilikiak.
- 17:30 Txiki-txupina Diskodantzakaz.
- 19:30 Kuadrilen eta familien jaitsiera.
- 20:00 Parrillada.
- 21:30 Suzko zezena.
- 22:00 80-2000 gaua.
- 23:30 Erromeria.

Abuztuak 27, eguena

- 11:00 Umeentzako puzgarriak.
- 12:00 Tortilla-lehiaketa.
- 13:00 Trikipoteoa.
- 17:00 Umeentzako puzgarriak.
- 17:30 Artisau-azoka..
- 18:30 Familien arteko herri-jolasa.
- 21:00 Playback lehiaketa.
- 22:00 Kontzertuak.
- 01:00 Dja.

Abuztuak 28, barikua

- 09:00 Diana Agustin Deuna.
- 11:30 Umeentzako ur-puzgarriak eta bitsa-festa.
- 12:00 Paella-lehiaketa.
- 12:30 Kuadrilen herri-kirolak.
- 13:00 Musika Bandaren kalejira, otxotea eta Kantagunea.
- 15:00 Herri-bazkaria.
- 17:00 Umeentzako puzgarriak.
- 17:30 Helduentzako luntxa.
- 18:00 Kuadrillen eta familien probak.

- 18:30 Txitxarrilloa.
- 19:00 Sound system.
- 21:30 Suzko zezena.
- 23:00 Kontzertuak.
- 02:00 Kulero eta galtzontziloen lasterketa.

Abuztuak 29, zapatua

- 08:00 Diana txistulariakaz.
- 12:00 Pailazoak eta familientzako paintballa.
- 12:30 Erraldoiak eta kilikiak.
- 12:30 Kuadrilen ginkana.
- 13:30 Bertso-saioa.
- 15:00 Kuadrillen bazkaria.
- 17:00 Umeentzako puzgarriak.
- 17:30 Aurreku txapelketa.
- 18:00 Elektrotxaranga.
- 18:30 Familien lehiaketaren sari-banaketa.
- 20:00 Kuadrilen sari-banaketa.
- 22:00 Kontzertuak.

Abuztuak 30, domeka

- 09:00 Putxera-lehiaketa.
- 11:00 Ur-guda.
- 11:30 Dantzarien kalejira.
- 12:00 Dantza-erakustaldia.
- 12:30 Banda de Carton kalejira.
- 13:30 Erraldoiak eta kilikiak.
- 14:30 Putxera-lehiaketaren sari-banaketa.
- 18:00 Bilbainadak.
- 21:00 Suzko zezena.
- 21:30 Jaien amaiera eta traka.

Egitarau hau behin-behinekoa da; jaiak hurbildu ahala behin betikoaren berri emango dugu HIRUKA.eus-en





Motabbarri

Leioa-Unbe errepidea. 32 Erretegia
48950 ERANDIO

619 62 29 74

motabarrijatetxea@gmail.com




txakoli

mota

gane

txakolina



94 467 00 07

Leioa-Unbe errepidea, 34 • Goierrri-Erandio
AKARLANDA PARKEA

www.txakolimotagane.com

Agasne Uribarri 2025eko Plentziako jaietako Madalentxu

«Herriko bizitzan parte hartzea da kontua»

Agasne Uribarri Plentziako jaietako Madalentxu izango da abuztuaren 22ra arte. Egun horretan, urte honetan aukeratutako Antolintxu, Madalentxu eta Antolintxu zein Madalentxu txikiak aurkeztuko dituzte, eta lekukoa emango die festetako aurtengo protagonistei. Egun hori heldu bitartean, esperientzia nolakoa izan den galdetu diogu Uribarriari.

Nola bizi izan zenuen aukeratua izan zine-la jakin zenuen unea? Deitu nindutenean ez nuen inondik inora espero. Hasieran zalantza izan nuen, noski, ardura handia delako; azken batean, hainbat egunetan herriaren aurrean egon behar zara ordezkarri moduan. Azkenean baietz esan nuen, eta sekulako pozarekin bizi izan nuen esperientzia.

Urtero Madalentxuak eta Antolintxuak modu demokratikoan aukeratzen dira. Zergatik uste duzu aukeratu zintuztela? Herrian kuxak jartzen dira eta jendeak izenak bozkatzeko dituzte; gero, elkarteek aukeratzen gaituzte hautagaien artean. Ez nuen espero jendeak nigan pentsatzea. Betidanik parte hartu izan dut herriko gauzetan, baina ez nuke esango bereziki festazalea naizenik. Herrian ezagu-



Mikel Gondra, Agasne Uribarri, Katrin Landia eta Unax Astelarra iazko jaietan.

na izatea da kontua, berdin dio hemen jaioa edo udatiarra zaren: belaunaldi desberdinekin harremana edukitzea, herriko eguneroko bizitzan parte hartzea... Alde horretatik bai, herriarekin lotura handia daukat.

Zuretzat urte bereziki hunkigarria izan da gainera. Bai, guztiz. Niretzat opari bat izan zen. Aitaren zaintzan gehiago egon behar izan genuen, eta berarekin azken une horiek bizitzea opari bat izan zen. Madalentxu izatean bere aurpegian ikustea... hori oso hunkigarria izan zen. Herria, jendea, harremanak, auzolana... hori guztia oso inportantea zen berarentzat.

Izendapena ez da jaietara bakarrik mugatzen, ezta? Ez, urte osoan zehar hainbat konpromiso ditugu, talde berezi bat bezalakoa da eta egiten diren ekitaldi berezi batzuetan ere parte hartu behar dugu. Adibidez, Madalentan ere gutxi botatzen dugu txupinazoa. ◀



Irakurri ezazu elkarrizketa osoa www.hiruka.eus webgunean edo goiko QR kodigoa eskaneatuta.



Abuztuaren 22tik irailaren 2ra

ANTOLINTXU ETA MADALENTXU EGUNA

Abuztuak 22, zapatua

- 11:00** Kalejira, Ontziola plazatik Eleiz enparantzaraino.
- 12:00** Antolintxu eta Madalentukuen omenezko meza.
- 13:00** 2026ko Antolintxu eta Madalentukuren aurkezpena, Eleiz enparantzan.

SAN ANTOLIN JAIK

Abuztuak 28, barikua

- 14:30** Herri-bazkaria.
- 17:45** Antolintxu eta Madalentukuren harrera.
- 18:00** Txupinazoa, Andra Marira igoera eta aurrekua.
- 20:00** Dantza-saioa, Plentziako Itxas Eder taldearen eskutik, Ontziola plazan. Euria eginez gero, Jai Alai frontoian.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 23:00** Gau Zuria: Gautegun taldearen erromeria.

Abuztuak 29, zapatua

- 10:00** LIV. Marmitako-lehiaketarako izen-ematea.
- 13:30** Marmiten aurkezpena.
- 16:30** Sari-banaketa.
- 17:00** Olinpiadak, futbito-zelaian.
- 20:30** Umeen playback-lehiaketa.
- 22:00** Zezensuzkoa, futbito-zelaian.
- 22:00** Lowe Band taldearen kontzertua.

Abuztuak 30, domeka

- 10:30** Plentzia La Gallarda VII. Familia Kros Herrikoa: Arturo Peña Memoriala, Plazatxotik abiatuta.
- 12:00** Molto motorren sari nagusia, 0 eta 4 urte bitarteko umeentzat.
- 13:00** Piraten bitsaren jai. Pirataz mozorrotuta etorri!



- 18:00** Nagusientzako bingo-arratsaldea.
- 21:30** Zezensuzkoa, futbito-zelaian.
- 22:00** Helduen playback-lehiaketa.
- 01:30** DJ Bolo.

Abuztuak 31, astelehena

- 10:00-11:00** Tortilla- eta entsalada-lehiaketetarako izen-ematea.
- 10:00-11:00** Paella-lehiaketetarako izen-ematea.
- 12:30-13:00** Entsaladen aurkezpena.
- 13:00-13:30** Tortillen aurkezpena.
- 13:30-14:00** Paellen aurkezpena.
- 14:30** Sari-banaketa.
- 19:00** Helduen mozorro-lehiaketa, Erriberan. Ondoren, sari-banaketa.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 22:30** Mambo Express taldearen emanaldia.

Irailak 1, martitzena

- 09:00** Eskualdeko CXXXII. Nekazaritza Azoka.
- 11:00** Diana.
- 12:00** Euskal jantzi tradizionalen erakusketa Erriberan zehar, Plazatxotik abiatuta.
- 19:00** Zesta-punta, Jai Alai frontoian.

- 19:00** Umeen mozorro-lehiaketa, Erriberan. Ondoren, sari-banaketa.
- 20:30** San Antolin XI. bertso-saioa, Eleiz enparantzan. Miren Artetxe Sarasola, Alaia Martin Etxebeste, Aitor Etxebarriazarraga Gabiola eta Aitor Mendiluze Gonzalez arituko dira.
- 22:00** Zezensuzkoen entzierroa.
- 22:30** Nonbait taldearen erromeria.

Irailak 2, eguaztena

- 11:00** Txupinazoa eta diana txistulariakaz.
- 11:30** Antolintxu, Madalentuku eta Udaltzaren kontzentrazioa Ontziola plazan, Eleiz enparantzara igotzeko.
- 12:00** Antolin Deunaren omenezko meza eta aurrekua.
- 13:30** Musika-bandaren kontzertua, Ontziola plazan. Euria eginez gero, elizan.
- 15:00** Fanfarriaz girotutako koktela.
- 17:00** Umeentzako puzgarriak, portuan. Euria eginez gero, Jai Alai frontoian.
- 20:00** Urrezko Alpagaten banaketa eta Antolintxu eta Madalentukuren agurra.
- 22:00** Oxabi taldearen erromeria.

URIBE KOSTA
SASKIBALOIJA

**SASKIBALOIAN
JOKATU NAHI DUZU
GORLIZEN?**

TEMPORADA 2026/2027 DENBORALDIA

**¿QUIERES JUGAR A
BALONCESTO
EN GORLIZ?**

Adin guztiak · Todas las edades

INFORMAZIOA-INFORMACIÓN

627941797 | uk_saski
uksaskibaloia@gmail.com
WWW.UKSASKIBALDIA.EUS

Izen-emateak

MUSEO PLASENTIA DE BUTRÓN

PLENTZIA
Goienkale 27

contacto@museoplentzia.org
946 773 725

**ENTRADA
GRATUITA**

**SARRERA
DOHAIN**

«Inor etxean geratu ez

Irailaren 4tik 13ra

Irailak 4, barikua

- 18:30** Kuadrillen ongietorria eta festa giroa herri osoan zehar.
- 19:00** Txupinazoa udaletxetik Txikipandi (helduak) eta Kakarraldi Beti Prest (umeak) kuadrillakaz.
- 19:15** Kakarraldoaren harrera buruhandiakaz Abadeneraino.
- 20:00** Meza herriko defuntuengatik eta Beti Lagunak Abesbatzaren ekitaldia.
- 21:00** Helduen Playback lehiaketa Abadanen Eleder-en laguntzagaz.
- 00:00** DJ Diseven kontzertua, txosna-gunean.

Irailak 5, zapatua

- 11:30** Egurrezko jolasak eta errealitate birtuala.
- 12:00** Helduen kuadrillenzako futbolin txapelketa, Marutze plazan.
- 13:45** Umeentzako herri-bazkaria, txosna-gunean.
- 15:00** Helduentzako herri-bazkaria, txosna-gunean.
- 15:30** Umeentzako jolasak eta tailerrak, frontoian.
- 17:00** Bazkalostea Super Goxo taldeagaz, txosna-gunean.
- 20:30** Zezensuzkoa, txosna-gunean.
- 21:00** Arnasestu kontzertua, txosna-gunean.
- 22:30** Maskak kontzertua, txosna-gunean.
- 00:00** Bribri Blibli, Extremoduro taldearen tributua eta Los Plateros, Platero y Tu taldearen tributua, txosna-gunean.

Irailak 6, domeka

- 11:00** Umeentzako parkea.
- 12:00** Umeentzako Street Basket.
- 13:00** Bits-jaiak.
- 16:00** Lekuko txirrindularitza lehiaketa, eta, amaieran, sari-banaketa.
- 16:30** Mus-txapelketa.
- 17:30** Umeen playback lehiaketa, txosna-gunean.
- 19:30** DJ Paco diskofesta.

Irailak 8, martitzena

- 10:00** Kalejira txistulariakaz alaituta.
- 11:00** Meza nagusia Andra Mariren ohorean.
- 11:45** Ohorezko aureskua, Abadanen.
- 12:30** Herri-kirolak, txosna-gunean.
- 17:00** Kilometro erdi bertikala.
- 18:00** Umeentzako futbolina, kuadrillen txapelketa Marutze auzoan.
- 19:00** Sardina-jana, txosna-gunean.
- 20:00** Bilbotxeros Band kontzertua, txosna-gunean.

Irailak 10, eguna

- 18:00** Padelen finalak kiroldegian.

Irailak 11, barikua

- 16:30** Frontenis finala frontoian.
- 17:00** Skate erakusketa eta tailerra skate parkean, eta grafiti tailerra.
- 19:30** Txistorra-jana, txosna-gunean.
- 21:45** Zezensuzkoa, txosna-gunean.
- 22:00** Kontzertua: Urtz, txosna-gunean.

- 23:45** Las Divas del Pop (Amaral, Mecano eta La Oreja de Van Gogh tributoa) kontzertua, txosna-gunean.

Paella Eguna

Irailak 12, zapatua

- 07:30** Paella-lehiaketaren hasiera, Elortza auzoan.
- 10:00** Kalejira txistulariak alaituta.
- 13:00** Iratxo Gorria Dantza Taldearen emanaldia.
- 14:00** Paellen aurkezpena.
- 17:30** Erromatar olinpiadak, jolas dinamikoak.
- 19:30** Paella-lehiaketaren sari-banaketa.
- 22:00** La Mala Pekora kontzertua, txosna-gunean.
- 23:45** Lehian erromeria, txosna-gunean.

Irailak 13, domeka

- 11:00** Umeentzako puzgarriak, tx-txu trena eta bits-jaiak.
- 13:00** Bits- jaiak, Lehendakari Agirre plazan.
- 17:00** Rally umoristikoa, kuadrillen lehiaketa.
- 19:00** Kuadrillen arteko txapelketaren sari-banaketa..
- 19:30** *Ardatzak* itxiera-ikuskezuna, Zirkozaurre.



TXIBERRI

edantokia

Frontoi partikularra, terraza estalia, bokatak, artisau-garagardoak, eramateko tortila osoak eta askoz ere gehiago.



Gustora egoteko behar duzun guztia!
Aita Gotzon kalea, 4 · URDULIZ · 946.760.715

634 446 347 / 688 687 073 / 671 357 601
serviciocaninobizkaia@gmail.com



SERVICIO CANINO BIZKAIA
serviciocaninobizkaia.com



dadila!»

Irailean, Uribe Kostako udako jaien azken urratsak urduliztarrek emango dituzte andramarietan. Jai-batzordeak azaldu duenez, udaren amaiera izan arren, urtero jendea disfrutatzeko gogo handiagaz doa.



Aurten, Txupipandi kuadrillak botako du txupina, beraiek irabazi baitzuten iaizko lehiaketa.

Jai-batzordea Festek berritasunak dakartzate

LAURA FONTALBA COLOMO ▶

Andra Mariko jaien atzean, urte osoan zehar egindako lan handia dago. Parte-hartzaileak boluntarioak izan arren, jai-batzordeak tamaldu du, askotan, ekitaldien antolaketan laguntzen duen jende faltan botatzen dutela. Hala ere, inoiz ez dute egoera hori aitzakiaz hartu, eta, urtero, udari amaiera borobila emateko jaiak ospatzeaz arduratzen dira.

Aurten, festak leku-aldaketakaz helduko dira, bi gunetan bananduko baitituzte. Udalak herritarrei egindako inkesta baten emaitzak direla eta, lehenengo aste-akabuan Abadene egitea adostu dute; bigarrean, ordea, udaletxearen inguruan ospatuko dituzte.

Abadene zein udaletxearen inguruan giro berdina espero duzue? Bai. Pasa den urtean herritarrei Abadene asko gustatu zitzairen, eta, aurten, udaletxean dagoen toki berria



«Jai atseginak eta dibertigarriak izateko helburua daukagu, adin guztientzako jardueren aniztasunagaz. Egia da jendea disfrutatzeko gogo handiagaz etortzen dela nabaritzen dugula»

ezagutuko dugu. Jende askorentzat erakargarria izango den tokia da; zalantzarik ez dugu.

Zer egiten duzue jaiak bi gunetan banatu arren, herri osoa lotuta sentitzeko? Giro ezin hobea egongo da bi lekuetan; beraz, Abadene zein udaletxean dagoen toki berrian egingo diren jardura desberdinetan jendeariparte hartzera gonbidatzen diogu.

Kuadrillen parte-hartzea nolakoa izaten da? Kuadrillen parte-hartzeak giro bateratua sortzen laguntzen du eta beste herritar batzuei jardueretan parte-hartzera ere animatzen die.

Gazteak jai-batzordera eta antolakuntzara hurbiltzen ari dira, ala errelebo falta sumatzen duzue? Gehienetan ez dira hurbiltzen... Jai-batzordeari laguntzeko boluntarioak beti egoten dira, baina ekitaldien antolaketan parte-hartzen duen jendea faltan botatzen dugu.

Iaz Gozokitosek bota zuen txupina, nork botako du aurten? Aurten Txikipandi izango da, pasa den urtean kuadrillen txapelketa irabazi baitzuen eta, tradizioari jarraituz, txupineroa aurreko urtean irabazi zuen kuadrilla izango da aurten.

Kakarraldoa jaien ikur nagusia da herriarentzat; zer egin nahi duzue belaunaldi berriek ere bere egin dezaten? Orein hegalarriaren kakarraldoa herriaren ikurra da; hori ez galduko den zerbait; urtero, karteletan, zapietan... eta leku guztietan agertzen da.

Uribe Kostako azken jai nagusiak zuenak dira, uda ondo amaitzeko ardura edo erronka berezi gisa bizi duzue hori? Ez, guretzat ez da lehiaketa; beraz, ez dugu ardura hori sentitzen... Festa atseginak eta dibertigarriak izateko helburua daukagu, adin guztientzako jardueren aniztasunagaz. Egia da jendea disfrutatzeko gogo handiagaz etortzen dela nabaritzen dugula.

Zer mezu bidaliko zeniekete herritarrei Andra Mari jaietara joateko? Jaiak herria batzeko aitzakia ematen digute: inor etxean geratu ez dadin! Festak aurkitzeko, elkar disfrutatzeko eta herria egiten jarraitzeko momentu hoberena dira. ◀

Jai-batzordea Udako azken jaiak



«Auzotarrantzat asteburu magikoa izaten da»

Aste-akabu bakarra izan arren, Leioako Txopoetako jaiak urte osoko auzolanaren eta belaunaldi guztiak batzen dituen giroaren isla dira.

Urteko jai gehienak amaituta daude, iristen dira Txopoetakoak. Horregatik, irailaren azken aste-akabuko ospakizunek badute zapore berezi bat auzotarrantzat. «Txopoetako jaiak udako azkenak dira; batetik, jaien amaiera dira, eta, bestetik, kurtso berriaren hasiera», azaldu dute. «Jendea nekatuago iristen da, baina auzotarrantzat asteburu magikoa izaten da».

Aste-akabu horren atzean, ordea, hilabeteetako lana dago. Jaiak amaitu bezain laster hasten dira hurrengo urtekoak prestatzen: talde eta erromeriak hitz egiten dute, Udalagaz bilerak egiten dituzte eta iraila hurbiltzean azken xehetasun guztiak lotzen dituzte. «Ez da urte osoko lana, baina bai urte osoan buruan daramazun ardura», diote.

Hala ere, argi dute jaiak ez liratekeela posible izango jai-batzordearen lanagaz bakarrik: «Auzoaren laguntza ezinbestekoa da: txosnako txandak egiteko, ekintzak antolatzeko eta, batez ere, jaietako emateko». Horixe da, hain zuzen ere, festa hauen berezitasunik handiena. Txopoeta auzo txikia da, eta horrek giro berezia sortzen du. «Denok elkar ezagutzen dugu, eta asteburu horretan auzo osoak elkarregaz ospatzen ditu jaiak», diote. Lehen aldiz bertaratzen denak berehala nabaritzen du: «Hemen adin guztietako jendea ikusiko duzu elkarrekin gozaten».

Egun, sei lagunek osatzen dute taldea, baina ez dute inoiz jaiak haienak bakarrik di-

Irailaren 25etik 27ra

Irailak 25, barikua

- 18:00 Txupinazoa! Jaiak hasi dira!
- 18:15 Txorizo dastatzea Herrikoia Txoperako Ehiza Kirol Elkartearen eskutik.
- 18:30 Txikientzako tailerrak.
- 20:30 Afaldu aurretik, zatoz txosnara pote bat hartzera!
- 21:30 Zorte on bingoagaz!
- 22:00 Kontzertuak.

Irailak 26, zapatua

- 11:00 Txupinazoa. Altxa zaitzte denak, egun berri bat hasi da!
- 12:00 Azeriaren Ehiza etxeko txikientzat. Zatozte jolastera!
- 12:30 Txop Chef lehiaketarako izena eman txosnari!
- 15:00 Platerak aurkezteko unea.

- 18:00 Euskal dantzak Lamiako Txikiak taldearen eskutik.
- 18:30 Umeentzako erromeria.
- 21:00 Umeentzako mozorrotxapelketa.
- 23:00 Kontzertuak. Zatozte abestera!

Irailak 27, domeka

- 11:00 Txupinazoa. Egun on!
- 11:00 Mikel Deuna patroiairen omenezko meza.
- 11:00 Tortilla txapelketa. Anima zaitzte parte hartzera!
- 11:30 Txikientzako puzgarriak.
- 13:00 Etorri zaitzte txosnara herri mokadua dastatzera!
- 14:30 Tortilla aurkezteko momentua heldu da!
- 20:00 Herri txokolatada.
- 20:30 Bingo berezia. Zorte on!
- 21:00 Jaien amaiera.

Txopoetako jaien egitarau osoa: HIRUKA.eus-en



ETORKIZUNA

Auzolanaren espirituak bizirik jarraitzea da gura duten gauza bakarra. «Zaindu beharreko altxorrik handiena elkarrekin lan egiteko eta festak denon artean egiteko gogoa da», azaldu dute.

renik sentitu: «Harro egoteko modukoa da festa auzo osoaren lana izatea». Diotenez, boluntarioek, elkarteek eta auzotarrek egiten dute posible jaiak urtez urte bizirik mantentzea. Horregatik, haien ustez, «benetako altxorra ez dago egitarauan, elkarlanean baizik».

Hori dela eta, antolakuntzan pausoa ematera oraindik animatu ez diren auzotarrei gonbita luzatu diete. Kanpotik talde itxia dirudiela badakite, baina umorez erantzun dute: «Lasai, gaur egun gauden sei 'mongolek' ez dugu inor jaten, laguntzeko gogoa duen edonor ongiatorria da». Azken finean, «zenbat eta jende gehiago batu, orduan eta errazagoa eta aberatsagoa izango da festen antolakuntza». ◀

Jaiak Areea, Enekuri, Lutzana, Ondiz eta Udondo

Udari azken dantza

Orriotan eskualdeko udalerrri askotako jai nagusien berri jaso badugu ere, uda amaitzean, festak ez dira bukatuko. Irailean, Leioako hainbat auzok hartuko dute lekukoa; besteak beste, Ondizek eta Udondok. Erandion Enekurik eta Lutzanak ere jaiak izango dituzte udako azken asteetan, eta hori gutxi balitz, Areetako festak ere orduan ospatuko dituzte. Le-rook idazteko unean, jai-batzordeak eta antolatzaileak azken xehetasunak ixten ari dira oraindino; beraz, ezin izan dugu egitarau osoa jaso. Hala ere, prest egon ahala, hiruka.eus webgunean argitaratuko ditugu xehetasun guztiak, eta gure sare sozialen bidez ere emango dugu horien berri. Jakina, bertan izango gara jai-giroa gertutik bizitzeko baita.

Lehenengo hitzorduak Ondizko eta Enekuriko jaiak izango dira. Urtero bezala, auzoko hitzordu klasikoak ez dira faltako: bakailao-eta paella-txapelketak, auresku txapelketa,



Ez galdu xehetasunik

Areea, Enekuri, Lutzana, Ondiz eta Udondoko jaien egitarauak azken ukituak jasotzen ari dira. Prest daudenean, hiruka.eus webgunean eta gure sare sozialetan argitaratuko ditugu jarduera, ordutegi eta nobedade guztiak.

musika-emanaldiak eta haurrentzako jarduerak. Tradizioa eta jai-giroa eskutik doaz auzotako festetan, eta urtez urte auzokoen zein bisitarien topagune ederra izango dira.

Ondoren, Udondoko eta Lutzanako jaiak iritsiko dira, Leioan eta Erandion, hurrenez hurren, irailaren bigarren aste-akabuan. Egitaraua gutziz itxita ez badute ere, aurreko urteetako arrakastatsuenetako ekintzek lekua izango dutela aurreikusten da.

Udaren amaieragaz batera, Areetako jaiak ospatuko dituzte Getxon. Hauek irailaren hirugarren aste-akabuan iritsiko dira, Leioako Txopetakoak baino astebete lehenago. Egitaraua prestatzen ari diren arren, auzoko jai-batzordeak lanean jarraitzen du herritarrek elkartuko dituzten jarduera herrikoiak, musika eta familia giroko ekintzak antolatzeko. Xehetasun guztiak datozen asteetan ezagutaraziko dituzte, eta HIRUKAn ere horien berri emango dugu. ◀

siaazgetaria
HOTELA

XV. MENDEKO DORRETXE GOTIKOA

943 140 143
www.siaazgetaria.com
Roke Deuna, 25 - Getaria

Olatuen soinua izango duzue lagun gosalduta bitartean.

Bertsoz bertso arituko dira jaietan ere bai

Jaiak bertsolarientzako plaza ere izango dira hurrengo hilabeteetako festetan. Hala, ospakizunakaz batera, eskualdeko eta Euskal Herriko punta-puntako bertsolariak oholtza gainera izango dira euren trebetasunagaz ikusleak harritu, hunkitu eta dibertitzeko.

Uztailetik irailerako saioak

Uztailak 8, eguaztena

Bertso Jaialdi Mundiala

19:00 | Muxikebarri Antzokian

Ezezagunera bidaia ikusgarria bertsolari onenen eskutik. Bertaratzeko gonbidapenak daborduko eskuragarri daude bertsosarrerak.eus atarian.

Bertsolariak: Jone Uria, Xabat Illarregi, Alaia Martin, Sustrai Colina, Etxahun Lekue eta Maialen Lujanbio.

Uztailak 28, martitzena

Gorlizko Santiago jaiak

20:00 | Eliz plazan

Tradizio handiko bertso-saioa ez da faltako Gorlizko Santiago jaietan.

Bertsolariak: Paule Loizaga, Julio Soto, Irantzu Idoate eta Unai Iturriaga.

Gai-jartzailea: Beñat Vidal.

Uztailak 30, eguaztena

Algotako San Inazio jaiak

13:00 | Algotako Kasinoko plazan

Aurten ere, ALBEko bertsolariek etxean partida bikoitza jokatuko dute San Inazio jaietan.

Bertsolariak: June Diaz, Joanes Illarregi, Maddalen Arzallus eta Aitor Etxebarria-Zarraga.

Gai-jartzailea: Ohian Diaz.

Uztailak 31, eguena

Bertso Maratoia 2025

13:00 | Kasino plazan

San Inazio egunean, jaien epizentroan, kirol

proba gogorrenetan bezala arituko dira bertsolariak Algotako saninazioetan.

Bertsolariak: Onintza Enbeita, Igor Elortza, Unai Mendiburu eta Maider Arregi.

Maratoilariak: Onintza Enbeita eta Igor Elortza.

Gai-jartzailea: Jon Amezaga.

Abuztuak 2, domeka

Algotako jaietako bertso-saioa

13:00 | Kasino plazan

Algotako jaietan hiru saio egongo dira aurten; bertsolaritzaz gozatzeko aitzakiarik ez da izango aurten.

Bertsolariak: Jone Uria, Saioa Alkaiza, Maialen Lujanbio eta Nerea Ibarzabal.

Abuztuak 6, eguaztena

Itzubaltzeta/Romoko jaialdi berezia

16:30 | Txosnagunean

Bertsolaria: Jone Uria, Alaia Martin, Aitor Servier eta Amets Arzallus.

Abuztuak 8, zapatua

Astrabuduko San Lorentzo jaietako bertso-jira

13:30 | Etxegorri tabernatik hasita

Abuztuak 8, zapatua

Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jaietako bertso-jira

19:00 | Txosna-gunetik abiatuta

Bertsolariak: Inazio Vidal eta Nerea Elustondo.

Abuztuak 14, barikua

Algotako Portu Zaharreko jaietako bertso-saioa

19:30 | Etxetxu plazan

Portu Zaharretako jaietan ere bertsolariek euren tartea izango dute aurten ere.

Bertsolariak: Imanol Uria eta Sustrai Colina.

Abuztuak 15, zapatua

Portu Zaharreko jaietako Marmitako Eguneko saioa

17:45 | Etxetxu plazan

Marmitako lapiko artean ere bertsoak botako dituzte ezinbestekoa den saioan.

Bertsolariak: Galder Bilbao, Julen Ibañez eta Erlantz Pazos.

Abuztuak 29, zapatua

Erandioko San Agustin jaietako bertso-saioa

13:00 | Udaletxeko plazan

Altzagako jaietan ere bertso-saioa izango dute erandioztarrek.

Bertsolariak: Paule Loizaga, Txaber Altube, Sarai Robles eta Unai Iturriaga.

Gai-jartzailea: Iñaki Beitia *Arbildo*.

Irailak 20, domeka

Hitzaren Dantza





UDA HONETAN...
ERAGIN BURUARI ETA BIKAIN PASATU!
JOLASAK, ENIGMAK ETA ABENTURAK ZAIN DITUZU
OPORRETAKO PLANAK KOADERNOETAN.





Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

Margotu

Kirikiñoek ez dituzte bide-seinaleak ezagutzen. Horregatik, bidean ikusten badituzu, pasatzen utzi. Eta orain, margotu irudia zure gustura.





Zer da?

Ikusi al duzu halakorik inoiz? Nola deitzen diozu zuk?

Hizki zopa honetan haren izen batzuk aurkituko dituzu. Hondoko hauek:

TRIKUA

KIRIKOLATZA


XARROBIA


KIRIKIÑOIA

SAGARROIA

KIRIKIOA


SAGARRERROIA





Sudokua

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak TRIKUA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (T, R, I, K, U eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Olatz kirikolatzen beldurtiaren baratza

Hauze aurkitu beharko zenuke Olatz kirikolatzen etxearen inguruan:

-  6 euli
-  4 zizare
-  3 barraskilo
-  2 sorgin-orratz






Badakit!

Begira zer egin duen trikuak azkonarra ikusi duenean: bere gorputzean bildu, eta arantzasu beteriko bola bihurtu. Zure ustez, zergatik egin du hori?

Arriskua sentitu duenez, bere burua babesteko

Nahi gabe egin du



Harekin jolastu nahi izaten duelako


Sabelean ferekak nahi dituelako

Inoiz ez du halakorik egiten

Azkonarraren kiratsak giharrak uzurtu dizkiolako

Bete itzazu zurluneko domitxo zati honen zentzua izan dezan. Batez ere gauari lotuta geroi ohi diren sei gauza sartu behar dituzu fitxetan, koment! deuean:

Gauko Domitxo



Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia, eta gauarekin zerikuria duen esatera zahar bat agertuko zaizu. Horretarako, erabili hizki-marrazki alfabetoa. Bide batez, berehala asmatuko duzun esatera hori goiko marrazkiari lotuta dago, eta polit-polit margotu behar duzu.



Zein da zure aukera udarako?

Bizkaiko Zubia | Getxo



Ba al zenekien etxe ondo-ondoan ingeniartzaren eta historiaren altxor paregabea daukagula? Bizkaia Zubia itsasadarraren bi ertzak, Getxo eta Portugalete lotzen dituen munduko lehenengo zubi transbordadora da. Itsasadarra modu paregabean zergatzeko aukera emateaz gain, ikuspegi ezin hobea ere eskaintzen du, goiko aldea ere bisitatzea posible baita. Gainera urte hau berezia izango da, UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zuenetik 20 urte beteko direlako. Iragana, oraina eta etorkizuna lotzen dituen ezagutu beharreko ikur bat.

Bird Center | Gautegiz Arteaga



Urdaibai Bird Center ezinbesteko bisita da Urdaibaiko Biosfera Erreserbako txokorik bereziene-tako bat ezagutzeko. Paduraren bihotzean kokatuta, naturaren museo eta behatoki honek hegaztien eta migrazioen mundu liluragarria gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen du. Barneko behatokitik, teleskopioei esker, hegazti migratzaile ugari ikus daitezke ingurune natural paregabe honetan. Urdaibairen edertasunaz gozatzeko, ikasteko eta harritzeko leku aparta. Informazio gehiagorako: birdcenter.org.

Gasolinoa | Erandio



Industriaren garairik gorenean, Gasolinoa Eskuinaldeko zein Ezkerraldeko langileak euren lantegietara garaiz iristeko ezinbesteko garraioa zen, Erandio eta Barakaldo artean. Garaiak aldatu egin dira eta orain beste garraibide batzuk gailendu dira, eta Gasolinoa ere berrasmatu egin da eta bisita gidatuak eskaintzen ditu itsasadarra bertatik bertara ezagutzeko. Tokiko ohiturak eta itsas-sustraiak gogora ekartzen ditu oraindino. Anima zaitetz eskaintzen duen esperientzia turistikoa eta historikoa bizitzera!

Aquarium | Donostia



Donostiako Aquariuma derrigorrezko geralekua da Donostiara hurbiltzen diren bisitari guztientzako. Hiriko gunerik ikusgarrienean kokatuta, itsasoaren ondoan eta Alde Zaharretik pauso batera, 1928ko eraikin honek Kantauri itsasoko eta itsas-ondarearen erakusleihu bikaina eskaintzen du. Nabarmentzekoak dira bale australaren hezurdura osoa, 360 graduko tunel famatua, Kantauri itsasoko 200 espezie baino gehiago ikusteko aukera ematen duten akuarioak eta hainbat animalia tropikal ere. Informazio guztia: aquariumss.com.

HIRUKA lagunen txokoa Sari ederrak eskura!

Zozketa Nekaturreko NekaTxartela

Esperientzia zoragarri bat bizi gura duzu Nekaturreko ostatu batean? Txartel honi esker nekazaturismoen elkarteko 200 ostatu baino gehiagoren artean aukeratu ahal izango duzu.

Zozketan parte hartu gura baduzu, uztailaren 26a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen:
Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa Ibaizabalen koadernoak

Udan ere burmuinari eragiteko eta ikasten gozatzeko Ibaizabalen denbora-pasen koaderno eder hauek ditugu. Oporretan zoazen lekura zoazela, dibertsioa eta ikaskuntza izango dituzu!

Zozketan parte hartu gura baduzu, uztailaren 26a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen:
Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa Bizkaia Zubira bisita

Itsasadarraren ikuspegi paregabeaz gozatzeaz gain, eskualdeko eta Bizkaiko egitura berezietako bat barrutik ezagutu gura duzu? Ez galdu aukera eta eman izena!

Zozketan parte hartu gura baduzu, uztailaren 26a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen:
Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



Euskarazko **lanekin**

match.
egin!



Jendea
behar dut



Lana
behar dut



Lana behar baduzu eta euskalduna
bazara, eman izena



beharsarea

www.beharsarea.eus

